



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 5a

89. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko urriaren 31n hartutako erabakiaren bidez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 108. eta 127. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eleunden Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **epe bat hasiko da, 2012ko azaroaren 20ko hamahiruetan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Foru lege proiektu honek zenbait tributu-neurri onestea du xede, horrela helburu bikoitz bat lortu ahal izateko. Alde batetik, Nafarroako aurrekontu orokorren euskarri izatea; eta, bestetik, Nafarroako Gobernuaren programa ekonomikoa modu egokian gauzatzen laguntzea.

Une honetan, krisi ekonomiko eta finantzarioa, orokorra bada ere zalantzarik gabe, asko nabaritzen ari da Nafarroako ekonomian oro har, eta Foru Komunitateko kontu publikoetan bereziki; hori horrela, Nafarroako Gobernuaren zerga politika bideratu behar da aurrekontuen austeritatea hazkunde eta garapen ekonomikoa sustatzeko neurriekin bateratzera, oso argi izanik diru-sarrerara publikoak finkatu eta ziurtatzea politika horren funtsezko zutabeetako bat izanen dela, horrelaxe lagun baitaiteke, zalantzarik gabe, susperraldi irmo eta sendoa lortzen. Finantza publikoen desoreken zuzenketak, desoreka horietako bat aurrekontuen gehiegizko defizit jarraikia dela ahaztu gabe, ez du eragotzi behar bidezko neurriak ezartzea diru-sarrera publikoen kopuru egoki eta nahikoa lortzeko, beharrezkoa baita kalitatezko zerbitzu publikoak ordaintzeko eta ekonomia suspertzen eta lehiakortasuna sustatzen laguntzeko.

Ildo horretan, zehatz aztertu dira Foru Komunitateko zerga araudian dauden pizgarri fiskal nagusiak, gaur egungo egoera ekonomiko zailari egokitzeko saiatu ahal izateko; hala, kasu batzuetan, murriztu egin da pizgarri horien ahala, eta horrek gehikuntza nabarmenak ekarriko ditu diru-bilketan; beste kasu batzuetan, aldiz, egokitzat jo da pizgarriak zabaltzea, inbertsio produktiboari eta enplegu sorrerari beste bultzada bat emateko. Hala bada, Estatuko araudian hartutako neurrietan ez bezala, nahiago izan da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ohiko etxebizitzako

inbertsioaren kenkaria egiten jarraitzea, nahiz eta etorkizunean errenta maila baxu edo moderatuak dituzten subjektu pasiboek soilik izanen duten kenkari hori egiteko eskubidea. Dena dela, 2012. urtean jada kenkari horretaz baliatzen ari diren pertsonak aukera izanen dute, oro har, etorkizunean ere aplikatzen jarraitzeko, baina mugaren batekin. Bestalde, indartu egin da etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria, nabarmen igo baita urteko gehieneko muga.

Zerga horretan berean, zenbait pertsona juridikori ere aplikatuko zaion arren, zerga araudi berezi bat ezartzen da bai pertsona eta entitate ekintzaileentzat bai jarduera horietako inbertsioerentzat. Araubide hori Nafarroako 2013-2015eko Ekimen Planean txertatuta dago, zeina sortu baita enplegua sortzen duten eta Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialerako baliabideak ematen dituzten enpresen sorrera sustatzeko xedez, hain zuzen ere jarduera ekintzailea sortzen eta finkatzen lagunduz, lehiakortasuna handituz, finantzabideak hornituz eta administrazio tramiteak murriztuz.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, ukitu garrantzitsuak egin badira ere, mantendu egiten dira lau pizgarri fiskal garrantzitsuenak, hau da, berrinbertsioagatik salbuespena, inbertsioetarako erreserba berezia, aktibo finko berrietako inbertsioagatik kenkaria eta enplegua sortzeagatik kenkaria. Ezin da ahaztu pizgarri horiek, inbertsio produktiborako eta enplegua sortzeko lagungarri izateaz gainera, Nafarroaren foraltasun irudiaren oinarritzko elementuak direla zalantzarik gabe. Horiek galtzeak edo horiei uko egiteak,aldi baterako izan arren, era guztietako ondorio garrantzitsuak ekartzen ahal ditu orain eta gero. Arrazoi horiek kontuan harturik, eta hasiera batean gastu fiskal nabarmena badaukate ere, horiek mantentzeko hautua egin da. Hala ere, aktibo finko berrietako inbertsioagatik kenkariaren zenbatekoa murriztu egin da, beherratu egin baita kuota likidoaren gehieneko muga (gainditu ezin dena) eta beste baldintza bat ezarri baita horretaz baliatzeko (inbertsioaren gutxieneko zenbatekoa ezarri da). Enplegua sortzeagatik kenkaria nolabait baldintzatuta dago enpresako plantilla osoa hurrengo hamabi hilabeteetan mantentzera. Bestalde, beste muga batzuk ezarri dira finantza gastuen kenkarirako eta aurreko urteetako likidazio oinarri negatiboen konpentsaziorako. Neurri horiei esker diru-bilketak nabarmen handituko dira etorkizunean, eta horietako batzuk beste pizgarri fiskal batzuk handitzeko erabiltzen ahalko dira. Hala, inbertsioetarako erreserba berezia asko malgutuko da, bera indartzeko xedez eta, batez ere, enpresa txikiei pizgarri horretara maiztasun handiagoz iristen laguntzeko xedez.

Azken batez, neurri multzo horrekin diru-sarrea publikoak indartu nahi dira baina inbertsioari laguntza emateari utzi gabe, irizpide onartuenei jarraituz, horietan ageri baita aurrekontu finkapena hazkundera bultzatzen duten neurriekin elkartu beharra dagoela. Beste hitz batzuekin esanda, beharrezkoa da gehiegizko defizit publikoaren kontra borrokan segituko duten neurriak ekintzaileei, enplegua sortzen duten guneei lagunduko dieten beste neurri batzuekin bateratzea, horrela agente ekonomikoen konfiantza bultzatu ahal izateko.

Xede horiekin, foru lege proiektuak honako hauek aldatzen ditu, beste arau batzuen artean: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibideak onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea.

Foru legearen proiektuak bederatzitik artikulu, bi xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu.

Foru legearen proiektuko lehenbiziko artikuluak zenbait aldaketa egiten ditu ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginean.

Lehenik, araudi sektorial berrira egokitu dira gizarteratze-errentarekin eta beste gizarte zerbitzu batzuekin lotuta dauden prestazio eta laguntza publikoen zenbait salbuespen.

Bigarrenik, salbuespena kendu da Estatuko Loteria eta Apustuatarako sozietate estatalak antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sarietan, baita Foru Komunitateak, Gurutze Gorriak, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak eta antzeko entitate europarrek antolatuetan ere, eta 37. xedapen gehigarrian karga berezi bat sortu da, halako sarietarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Karga berezitik salbuetsita egonen dira zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo horretatik beherrakoa duten sariak; zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariak, aldiz, karga bereziari lotuta egonen dira, zenbateko horretatik gorako

zatiari dagokionez. Karga bereziaren kuota osoa zerga-oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuz zehaztuko da.

Testuinguru horretan, zehaztu egin da aipatu jokoak ez direnetan izandako irabazi eta galeren zerga araubidea eta, hala, ondare gutxitze gisa konputatuko dira joko horietako galerak, hots, kasuan kasuko zergaldiko irabaziak gainditzen ez dituztenean. Gainerako galerek, hau da, jokoko irabaziak gainditzen dituztenek, ondare gutxitze gisa konputatu gabe jarraituko dute.

Hirugarrenik, aldaketa garrantzitsu bat egin da urte batean edo epe laburragoan sortutako ondare gehikuntzen eta gutxitzeen zerga-ordainketan; horiek zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko dira. Aldaketa horrek ukitzen ditu epe laburrean izaten diren eta espekulaziotzat jotzen diren ondare elementuen salmentak, zeren eta aurrezkiaren zati berezian, (zerga-ordainketa arinagoarekin, oro har), honako hauek soilik txertatuko baitira: ondare gehikuntzak eta gutxitzeak, hots, eskualdatze dataren aurretik urtebete baino lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketak egitean agerian jartzen direnak, edo aurrerapen berarekin (urtebete baino gehiago) eskuratutako balioei dagozkien harpidetza eskubideenak.

Laugarrenik, nabarmen aldatu da ohiko etxebizitzako inbertsiogatikoen kenkaria, eta horrek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak. Alde batetik, murriztu egin da ohiko etxebizitzako inbertsiogatikoen kenkariaren gehieneko oinarria, hau da, 9.015 eurotik 6.000 eurora, banakako zerga-ordainketan. Beste alde batetik, murriztu egin da kenkarirako aukera, subjektu pasiboak zergaldian lortzen duen errentaren arabera, desberdintasunak ezarri baterako zerga-ordainketan eta familia ugariei lagunduz. Hori hala izanik ere, araubide iragankor eskuzabala ezarri da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritu duten pertsonentzat edo etxebizitzaren sustatzaileari diru kopuruak ordaindu dizkiotentzat. Subjektu pasibo horiek 2102ko abenduaren 31ra arte dagoen kenkari araubideaz baliatzen jarraitzen ahalko dute, baina mugaren batekin.

Etxebizitzaren arloan, orobat, nabarmen handitu da alokairuagatikoen kenkaria, urteko muga 900 eurotik 1.200 eurora igo baita.

Azkenik, lehenago aipatu den moduan, zerga araubide berri bat sortu da pertsona edo entitate ekintzaileentzat, baita jarduera ekintzaileetako inbertsoreentzat ere.

Jarduera ekintzailea da berritatzat jotzen den enpresa edo lanbide jarduera, hau da, beste titulartasun baten bidez lehenago osorik edo hein

batean gauzatu ez dena. Ekintzaileentzat jotzen diren enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile batean hasten diren pertsona fisikoak. Jarduera hori langile autonomo gisa gara dezakete edo, bestela, zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen dituen entitate bateko kide gisa, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa. Gainera, enpresa txikia izan beharko du eta hiru urteko bizia baino txikiagoa izan.

Pertsona edo entitate ekintzaileek onura fiskal hauek izanen dituzte: ez dute ordainketa zatikatuak egiteko betebeharririk izanen; eskubidea izanen dute urtebete geroratzeko, bermerik aurkeztu gabe eta berandutza interesik sortu gabe, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga edo sozietateen gaineko zerga dela-eta sartu beharreko kuota, baita PFEZaren kontura beren langileei egin dizkieten atxikipenak ere; azkenik, ikerketa eta garapen jarduerak eta berrikuntza teknologikokoak egitearen ondoriozko kenkariari dagozkion kopuruak itzultzeko eskatzen ahalko dute.

Jarduera ekintzaileetan inbertitu nahi duten pertsonak edo entitateek zerga pizgarri garrantzitsu bat dute: ehuneko 30eko kenkaria egiten ahalko dute ekintzaileentzat jotzen diren entitateen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, berrikuntza batzuk sartu dira finantza gastuen kengarritasuna mugatzeko arauetan; aldaketa nagusia da arau mugatzaile hori merkataritza talde batekoak ez diren sozietateei ere aplikatzea. Orain arte, merkataritza talde batekoak ziren sozietateei bakarrik aplikatzen zitzaizkien finantza gastuen kengarritasuna mugatzeko arauak.

Bestalde, inbertsioetarako erreserba bereziari dagokionez, lau aldaketa garrantzitsu egin dira pizgarri fiskal hori malgutzeko eta horren aplikazioa indartzeko. Ildo horretatik, zerga-oinarriaren murrizketako portzentajea handitu egin da mikro-enpresentzat, gutxieneko zuzkidura 50.000 eurora bitarte beheratu da, bost urtetik hiru urtera murriztu da funts berekien blokeoaldia, eta inbertsioak gauzatu ondoren erreserbak izan ditzakeen helmugak gehitu egin dira.

Sozietateen gaineko zergan sartzen diren aldaketekin jarraituz, lehenago aipatu den moduan, aktibo finko berrietako inbertsioagatikoen kenkarian beste baldintza bat ezarri da aplikatu ahal izateko, hots, inbertsioak 6.000 euroko gutxieneko muga izanen du zergaldi bakoitzean. Gainera, aldi batez beheratu da kenkari honek gainditu ezin duen muga: kuota likidoa 100eko 35etik 25era murriztu da.

Enplegua sortzeagatik kenkariak ere aldaketa handi samarra izan du: beste baldintza bat ezarri da osorik aplikatu ahal izateko, hau da, kasuan kasuko zergaldian kenkaria sorrarazten duen plantilla osoaren batez bestekoa (lan kontratua duten pertsonen kopurua urteko) hurrengo hamabi hilabeteetan mantentzea. Hurrengo hamabi hilabete horietan plantilla osoaren batez bestekoan murrizketa izaten bada, kenkaria txikiagoa izanen da.

Azkenik, zerga-oinarriaren murrizketaren aplikazioan mugaketa bat ezartzen da aldi batez, aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboak direla eta. Mugaketa horrek hogeit hamar milioi eurotik gorako negozio kopurua duten entitateetan izanen du eragina.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren esparruan, epez kanpo aurkeztutako autolikidazioen ondoriozko errekaruen alderdi batzuk zehaztu dira. Hala, tributudunak autolikidazio negatiboa aurkezten badu (itzuli beharreko kopuruarekin), eta, itzulketa lorturik, ondoren beste autolikidazio bat aurkezten badu eta, horretan, lortutakoa baino itzulketa txikiagoa eskatzen badu, 52.3 artikuluko errekarua bidezkoa ez den itzulketa zatiaren gainean igorriko da.

Beste alde batetik, zerga arloko egiaztapen eta ikuskapen prozedurak ez direnen ondorioz irekitako zehapen prozedurak bideratzen dituzten zerga arloko arau-hauste larrien zehapenentarako, proportziozko isun murriztuagoa proposatzen da. Eta horren oinarri, funtsean, arau-hausleak erakutsitako iruzur-asmo txikiagoa da, bai eta zerga arloko Administrazioak zehapen prozedura tramitatu eta betetzeko duen erraztasun handiagoa ere, tributudunak, egin zaion errekerimenduari erantzunez, ematen dituen datuetan oinarriturik askotan.

Zerga arloko datuak hirugarrenei lagatzeko aukerari dagokionez, bi kasutan handitu da: Osasun Departamentuarekin lankidetzan aritzeko xedez, Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileei osasun esparruan egiten dituzten ekarpenen gehiegizkoa itzul dakien, eta "Erabilera berezia" izeneko osasun laguntzaren zerbitzuko prestazioak kasu bakoitzean kudeatzen dituen Nafarroako Gobernu departamentuak modu egokian zehaztu ahal dezan erabiltzaile bakoitzak prestazio horietan egin beharreko ekarpenaren portzentajea.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, egintza juridiko dokumentatuen modalitatean ez dira zergari atxikiak egonen administrazio agintaritzak eskudunak ofizioski agintzen dituen aurreneurriko idatzoharrak. Administrazio publikoei beharrezkoak ez diren tramiteak kendu nahi zaizkie, aurreneu-

rrizko idatzohar horiek ezartzen dituen dokumentua aurkeztu behar ez izateagatik, edonola ere zergatik salbuetsia egonen bailitzateke.

Toki Ogasunen esparruan, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari aplikatu beharreko tarifak eguneratuko dira 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, dagokion KPIa aplikatuta, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibideak onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legea aldatu da, irekita urtebete baino gutxiago egoten diren establezimenduentzat proportziozko murrizketak ezartzeko.

Tasen arloan aldaketa garrantzitsuak egin dira, administrazio zerbitzuak ematean izaten diren aldaketetara egokitzeko. Hala, tasa berriak sortu dira, beste batzuen zergapeko egintza eguneratu egin da, eta tarifak ematen diren zerbitzu berrien arabera eta administrazio kostuetan izandako aldaketen arabera moldatu dira.

Energiaren eta ingurumenaren arloko iraunkortasunean modu positiboan eragitearren, zerga berriak sortu dira energia elektrikoaren ekoizpen baliorearen gainean, gastatutako erregai nuklearraren ekoizpenaren gainean eta gastatutako erregai nuklearraren bilketaren gainean.

Bukatzeko, balantzeen eguneratzea erantsi da. Gaur egungo egoera ekonomikoak eta azken eguneratzea orain hamasei urte egin izanak justifikatu egiten dute araua sartzeari. Enpresei era desberdinetako abantailak emanen dizkie: beren ondarearen egoera hobetuko du, beren kostuak hobeki ezagutzen eta mozkin zehazten lagunduko du, kanpoko finantziarioa izaten lagunduko du eta zama fiskal txikiagoa ekarriko du; gainera, borondatezkoa izanen da.

Azken xedapenetan lehenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru legea garatzeko, eta azken xedapenetan bigarrenetan, berriz, foru legearen indar hartzea arautzen da. Foru lege honek, orokorrean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Dena dela, kontuan izan behar da indar hartze horrek foru legearen artikulua bakoitzean ezarritako berriazko ondorioak izanen dituela. Horregatik, artikulua bakoitzera jo behar da aplikazioaren ondorioak zehazteko.

**Lehenengo artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Lege-

gintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), honela idatzita geldituko dira:

Bat. 7.c) artikulua, bigarren lerroaldea. 2012ko otsailaren 12tik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Aurreko lerroaldean xedatutakoa galarazi gabe, Langileen Estatuaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten diren kaleratze kolektiboen kasuetan, edo aipatu Estatuaren 52.c) artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik gertatzen direnetan, baldin eta, bi kasuetan, arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak, ekoizpeneak edo ezinbestekoak badira, aipatutako Estatuaren bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.”

Bi. 7.k) artikulua, azken lerroaldea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta gizarteratze-errenta eta prestazioak eta sorospinak agortuak dituzten langabetuentzako laguntzak ere, biak Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean ezarriak. Salbuetsiak egonen dira, halaber, jaiotzagatik, adopzioagatik, nork bere kargura haurrak izateagatik, adingabeen harreragatik, zurztasunagatik eta erditze edo adopzio anizkoitzagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak, bai eta familiaren arloko deialdien bidez ematen diren laguntzak, hala nola jaiotzak sustatzeko eta langileen lan eta familia bizitza bateratzeko neurri osagarriak.”

Hiru. 7. artikulua, f) letra kentzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Lau. 39.6.d) artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“d) Zergaldian jokoan izandako galeren ondorioz sortutakoak, zergaldi berean jokoan izandako irabaziak gainditzen badituzte.

Ez dira inoiz ere konputatuko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte hartzearen ondoriozko galerak.”

Bost. 54.1.b) artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“b) Ondare gehikuntzak eta gutxitzeak, hots, eskualdatze dataren aurretik urtebete baino lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketak egitean agerian jartzen direnak, edo aurrerapen berarekin eskuratutako balioei dagozkien harpidetza eskubideenak.

Eskualdatutako ondare elementuek inbertsioak edo hobekuntzak izan badituzte, aurrezkiaren oinarri berezi horretan sartuko dira inbertsio edo hobekuntza horiei (eskualdaketaen aurretik urtebete baino lehenago eginei) dagozkien ondare gehitzeak edo gutxitzeak.

Aurrezkiaren zati berezian sartuko dira, orobat, ohiko etxebizitza erosteagatik edo zaharberitzeagatik kapital moduan eskuratutako diru-laguntzen ondoriozko ondare gehitzeak.”

Sei. 62.1 a) artikulua, lehen lerrokada. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza dena edo izanen dena eskuratu edo zaharberitzeagatik kasuko zergaldian ordaindutako kopuruaren 100eko 15. Kenkari horren oinarri gehienezkoa urteko 6.000 eurokoa izanen da.”

Zazpi. 62.1 artikulua, h) letra gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“h). Kenkari hau aplikatzeko eskubidea izanen du zergaldiko oinarrien batura, hurrengo lerroaldean ezarritakoaren arabera kalkulatu, 18.000 eurotik beherakoa duen subjektu pasiboak. Batura horrek 20.000 eurotik beherakoa izan beharko du abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, zergaldiko oinarriak 55. eta 57. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen ondoriozko murrizketak gehituta, baita alderdi politikoei egindako ekarpenen eta haien kuoten ondoriozkoak ere, aipatu 55. artikulua 1. idatz-zatitik 6.era bitartekoetan xedatutakoari jarraikiz.”

Zortzi. 62.2. artikulua, lehenengo paragrafoa. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“100eko 15, gehienez ere 1.200 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira.”

Bederatzi. 75. artikulua, 1. eta 2. arauak. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“1. 62.1.h) artikuluan aipatzen diren oinarrien baturaren zenbatekoa, oro har, 36.000 eurotik beherakoa izanen da familia unitate osorako. Batura horrek 40.000 eurotik beherakoa izan beharko du abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugarietarako buruzko

martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

2. 62.1.a) artikuluan ezarritako kenkariaren gehieneko oinarria 13.000 eurokoa izanen da urtean, familia unitate osorako.

62.1.c) artikuluan ezarritako kenkariaren oinarrien zenbateko osoa 240.000 eurokoa izanen da familia unitate osorako.”

Hamar. Hogeigarren xedapen gehigarria, 2. idatz-zatia. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“2. Kenkari horren zenbatekoa honako diferentzia positibo hau izanen da: aurreko idatz-zatian aurreikusitako etekin garbien zenbateko osoa batu eta konpentsazetik sortzen den saldo positiboari aurrezkiaren oinarri likidagarri bereziaren kargatasak (60. artikuluan jasoak) aplikazetik sortzen den kopuruaren eta aurreko idatz-zatiko ehunekoak aplikatu eta etekin horiek likidazio-oinarri orokorrean sartu izanez gero egokituko litzatekeen kuota osoaren zenbateko teorikoaren arteko diferentzia.”

Hamaika. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Zenbait loteria eta apostutako sarien gaineko karga berezia.

1. Zerga honi karga berezi baten bidez loturik egonen dira zerga honen mendeko zergapekoek lortzen dituzten sari hauek:

a) Estatuko Loteria eta Apustuatarako sozietate estatalak, Nafarroako Foru Komunitateak edo autonomia erkidegoek antolatutako loteria eta apustuatarako sariak, baita Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetakoak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak baimendutako jokotakoak ere.

b) Era berean, gizarte-laguntzako jarduerak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatukide batean finkatuak badaude eta aurreko leerroaldean adierazitako erakundeen edo entitateen helburu berberak badituzte.

Karga berezia loteria edo apustuko txartel sari-tu bakoitzari bereizirik ezarriko zaio.

2. Karga berezitik salbuetsita egonen dira 2.500 euroko zenbateko osoa edo hori baino txikiagoa duten sariak. Zenbateko osoa 2.500 eurotik

gorakoa duten sariak karga bereziari loturik egonen dira, zenbateko hori gainditzen duen zatiari dagokionez.

Aurreko leerroaldean xedatutakoa aplikatuko da loteria edo apustuko txartela gutxienez ere euro batekoa denean. Euro batetik beherakoa denean, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa, aurreko leerroaldean aipatua, proportzioan murriztuko da.

Saria titulartasun partekatukoa izanez gero, aurreko leerroaldeetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia hainbanatu egingen da titularkideen artean, bakoitzaren kuotaren arabera.

3. Karga bereziaren zerga-oinarria aurreko 2. idatz-zatian aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duen sari zenbatekoak osatuko du. Saria gauzazkoa bada, zerga-oinarria honako hau izanen da: konturako sarreraren zenbatekoan murrizketa egin ondoren, sariaren merkatu balioaren zatia, aurreko 2. idatz-zatian aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duena, agertzen duen zenbatekoa.

Saria titulartasun partekatukoa izanez gero, zerga-oinarria hainbanatu egingen da titularkideen artean, bakoitzaren kuotaren arabera.

4. Karga bereziaren zenbateko osoa izanen da aurreko 3. idatz-zatian ezarritako zerga-oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuta ateratzen dena. Kuota hori murriztuko da 6. idatz-zatian ezarritako konturako sarreraren edo atxikipenen zenbatekoan.

5. Lortutako saria ordaintzen den unean sorraziko da karga berezia.

6. Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren sariak konturako sarreraren edo atxikipenaren mende egonen dira, 80. eta 87. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Konturako sarreraren edo atxikipenaren portzentajea ehuneko 20koa izanen da. Konturako sarreraren edo atxikipenaren oinarria karga bereziaren zerga-oinarriaren zenbatekoak zehaztuko du.

7. Xedapen honetan ezarritako sariak lortu dituzten subjektu pasiboek autolikidazio bat aurkeztu beharko dute karga berezi hau dela eta, dagokion zerga zorraren zenbatekoa zehaztuta, eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen toki, modu eta epeetan sartu beharko du zenbatekoa.

Dena dela, autolikidazio hori ez da aurkeztu beharko lortutako saria aurreko 2. idatz-zatian ageri den zenbateko salbuetsia baino txikiagoa denean, edo konturako sarrera edo atxikipena egin denean aurreko 6. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz.

8. Ez dira zerga honen zerga-oinarrian sartuko xedapen gehigarri honetan aipatu diren sariak. Horretan ezarritakoaren arabera egiten diren konturako sarrerek edo atxikipenek ez dute murriztuko zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko 85. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

9. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako jokoen ondoriozko sariei.”

**Hamabi.** Berrogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. Ekin-tzailatzat jotzen diren pertsonen edo entitateen eta entitate horietan inbertitzen dutenen zerga araubidea.

#### 1. Jarduera ekintzailearen ezaugarriak.

Jarduera ekintzailea da berriztat jotzen den enpresa edo lanbide jarduera, hau da, beste titulartasun baten bidez aurreko bost urteetan osorik edo hein batean gauzatu ez dena. Jarduera desberdintzat joko da jarduera ekonomikoaren gaineko zergan multzo desberdinekoa dena.

Ez da berriztat joko aurreko bost urteetan ekintzailearen ezkontideak gauzatutakoa, ezta aurreko edo ondorengo ahaideek gauzatutakoa edo aipatutako pertsona horietakoren baten partaidetza duen errenta egozpeneko araubideko entitate batek gauzatutakoa ere. Halaber, ez da berriztat joko titularrarengandik eskuratutako jarduera edo ustiapena, ezta titulartasunaren edo enpresa edo lanbide jarduera baten oinordetza izan bada.

Jarduera nagusia ezin da izan ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 33.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera ez da aldi baterako enpresa-elkarteen araubidearen mende egonen, eta ez da enpresa berregituratzeko eragiketa baten ondorioa izanen.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari ahalmena ematen zaio idatz-zati honetan xedatutakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan, foru agindu baten bidez.

#### 2. Pertsona edo entitate ekintzaileak: betebeharrak.

Pertsona edo entitate ekintzailatzat honako betebeharrak hauek betetzen dituztenak hartuko dira:

a) Enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile bat hasten duten pertsona fisikoak, edo zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen dituen

entitate bateko kide gisa garatzen dutenak, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa.

Jarduera entitate juridiko baten bitartez eginez gero, enpresa edo lanbide jarduera ekintzaileari eraketa egunetik gehienez ere hemezortzi hilabeteke epean eman beharko zaio hasiera.

Ondorio horietarako, enpresa edo lanbide jardueraren hasieratzat joko da ondasun edo zerbitzuak eskuratzen direneko unea, betiere ondasun edo zerbitzu horiek jarduera garatzeko direla berresten bada elementu objektiboen bidez.

b) Enpresa txikia izatea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 50.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

c) Lau urteko bizia baino gutxiago izatea, jarduera hasi eta ondoko urtarrilaren 1etik hasita.

Jarduera ekintzailea pertsona fisiko batek hasi badu, eta pertsona horrek entitate baten esku jarri badu jarduerari jarraipena ematearren, entitate hori pertsona fisikoaren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da, eta onura fiskalez baliatzen jarraitzeko beharrezkoak diren betebeharrak bere gain hartuko ditu. Letra honetan aipaturiko epearen ondorioetarako, pertsona fisikoak jarduera hasi zuenetik igarotako denbora konputatuko da.

#### 3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak.

Pertsona edo entitate ekintzaileek onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Ez dute ordainketa zatikatuak egiteko betebeharrak izanen.

b) Zerga arloko Administrazioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutza interesa sorrarazi gabe, sartu beharreko kuota geroratzeko sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduera dela eta. Geroratutako kuotaren sarrera zergaldi bakoitzeko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean egin beharko da.

c) Zerga arloko Administrazioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutza interesa sorrarazi gabe, beren langileei egindako konturako atxikipenak geroratzeko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan. Geroratutako kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.



d) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntza teknologikorako jarduerak egitearen ondoriozko kenkariari dagozkion kopuruak itzultzea eskatzen ahalko dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 87. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

4. Pertsona edo entitate inbertitzaileen onura fiskalak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari lotutako subjektu pasiboek ehuneko 30eko kenkaria egiten ahalko dute ekintzailatzat jotzen diren entitateen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan.

Pertsona fisikoak diren inbertsoreen kasuan, kenkari hori aplikatuko da 62.3 artikuluan enpresa eta lanbide jardueretako kenkarientzat ezarritako ezaugarriekin eta baterako mugarekin, sozietateen gaineko zergako araudiari jarraikiz. Pertsona juridikoak diren inbertsoreen kasuan, kenkaria batera aplikatuko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 72. artikuluan ezarritako muga berberekin.

Kenkari horiek aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

b) Pertsona fisikoa den subjektu pasiboaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen 100eko 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen edo bikotekide egonkorren partaidetza eta haren odol bereko edo ezkontzako zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

c) Pertsona juridikoa den subjektu pasiboaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen 100eko 40tik gorakoa. Partaidetzaren gehieneko muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

d) Pertsona fisikoa den subjektu pasiboak bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan parte har dezake, baina ezin du inola

ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Ezin izanen du, orobat, inbertsioaren xedeko entitatearekin lan harremanik izan.

e) Akzioak edo partaidetzak hiru urtez gutxienez mantenduko dira subjektu pasiboaren ondarearen barruan.

f) Kenkari hau aplikatzeko ezinbesteko baldintza izanen da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aurretik egiaztatzea inbertsioa hartu duen enpresak lehen adierazitako baldintzak betetzen dituela. Sozietateak hori egoki frogatu beharko du.

5. Erregistroko betebeharrak.

Zerga araubide hau aplikatzeko, subjektu pasiboek pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu beharko dute.

Zerga arloko Administrazioak bidezkoak diren egiaztapenak eginen ditu eskatutako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

Erregistroko inskripzioa, pertsona fisikoei eta errenta egozpeneko araubidean dauden entitateei dagokienez, beren jardueraren hasieratik egiten ahalko da. Pertsona juridikoak eraketa unetik berek inskribatzen ahalko dira.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariari ahalmena ematen zaio inskripzio hori egiteko prozedura arau dezan eta araubidea aplikatzea bidezkoa den zehatz dezan, foru agindu baten bidez.

6. Ez betetzeak.

Aurreko zenbakietan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada edo erregistroetako datuak zuzenak ez direla edo faltsuak direla egiaztatzen bada, hori aski izanen da erregistroko inskripzioa ukatzeko edo, subjektu pasiboak jadanik inskribatuta baldin badaude, erregistro horretatik baztertzeke.

Ez-betetze horrek gozatutako onura fiskalak galtzea ekarriko du. Horrelakoetan, pertsonak edo entitateak, ez-betetzea gertatu eta hilabeteko epean, onura fiskalak bidegabeki aplikatzearen ondoriozko diru kopuruak eta bidezko berandutza-interesak sartu beharko ditu.

Aurreko 4. idatz-zatian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, egindako kenkarirako eskubidea galduko da. Halakoetan, subjektu pasiboak behartua egonen da ez-betetzea gertatu den zergaldian zerga horretarako sorrarazitako kuota likidoari gehitzera bidegabeki kendutako diru kopuruak, gehi dagozkien berandutza-interesak.”

Hamahiru. Hirugarren xedapen iragankorra, 4. idatz-zatia gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“4. 2013ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain dauden eta 2009., 2010., 2011. eta 2012. urteei dagozkien ondare gutxitzeak, 54.1.b) artikuluan aipatzen direnak (2012ko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera), 54.2.b) artikuluan aipatutako ondare gehikuntzen eta gutxitzeen saldo positiboarekin konpentsatzen jarraituko da.”

Hamalau. Hamabosgarren xedapen iragankorra gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hamabosgarren xedapen iragankorra. Ohiko etxebizitzako inbertsioaren ondoriozko kenkariari aplikatzen ahal zaion araubide iragankorra: 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritutako etxebizitzak, bai eta data horren aurretik hasitako obrak eta ordaindutako kopuruak ere.

1. Subjektu pasiboak, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren leerroaldean xedatutakoaren arabera zehaztua, 18.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, zilegi izanen du ohiko etxebizitzako inbertsioaren ondoriozko kenkaria aplikatzen jarraitzea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2012ko abenduaren 31n indarra duten baldintzekin eta betebeharrekin bat, arrazoi hauetakoren batengatik aplikatzen dituen kopuruak direla eta:

a) Ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik, baldin eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritu bada.

b) Ohiko etxebizitza zaharberritu edo handitzeagatik, aipatu obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

c) Ohiko etxebizitza eraikitzeako obregatik, obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira edo data horren aurretik obren sustatzaileari kopuruak ordaindu bazaizkio.

d) Etxebizitza egokitzeko obregatik edo instalazioengatik (62.1.f) artikulua), baldin eta obra eta instalazio horiek 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

e) Ezkontza deuseztatzen denean edo dibortzioaren edo banantze judizialaren kasuetan, ezkontzak indarra zuen garaian subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan zena erosteagatik, baldin eta izaera hori izaten jarraitzen badu seme-alaba komuentzat eta haur horiekin bizi den aitarentzat edo amarentzat, betiere etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu bazen.

2. Aurreko atalean xedatutakoa hala izanik ere, kenkariaren gehieneko oinarria 6.000 eurokoa izanen da urtean banakako zerga-ordainketan, eta 13.000 eurokoa urtean baterako zerga-ordainketan.

3. Etxebizitza-kontuetan egiten diren ekarpenen araubidea.

Subjektu pasiboa, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren leerroaldean xedatutakoaren arabera zehaztua, 18.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, eta etxebizitza-kontuetan ekarpenak egin baditu 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik, araubide honen mende egonen da:

a) Ez du galduko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako kenkarietarako eskubidea, baldin eta 2012ko abenduaren 31n indarra zuten baldintzak eta betebeharrak betetzen baditu.

b) Ez du kenkaririk egiten ahalko 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera etxebizitza-kontuetan egiten diren ekarpenengatik.

4. Subjektu pasiboak, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren leerroaldean xedatutakoaren arabera zehaztua, 18.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, ez du galduko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako kenkarietarako eskubidea, erosteko aukera duten etxebizitzaren errentamendu kontratuetako balio erantsiaren gaineko zergaren kuota dela-eta ordaindutako kopuruei dagokienez, betiere 62.1.a) artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen badira.

Zergaldiko oinarrien batura 18.000 eurokoa edo handiagoa bada, subjektu pasiboak ezin izanen du balio erantsiaren gaineko zergako aipatu kuotei, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindu, dagokien kenkaria egin.

5. 18.000 euroko kopuru hori 20.000 eurokoa izanen da, abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Baterako zerga-ordainketa egiten denean, zenbateko horiek honako hauek izanen dira, hurrenez hurren: 36.000 euro orokorrean, eta 40.000 euro abenduaren 31n familia ugariak direnen kasuan.”

**Bigarren artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, eta deusetan galarazi gabe Bat, Bi, Sei, Hamaika, Hamabi, Hamahiru, Hamalau eta Hamabost idatz-zatietan ezarritakoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren

30eko 24/1996 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 38.5. artikulua. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“5. Entitatearen zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, artikulua honen 1. idatz-zatiaren laugarren lerroaldean aurreikusitako zenbatekoa hau izanen da: milioi bat euro bider zergaldiaren iraupenak urtearekiko duen proportzioa.”

Bi. 38. artikulua, 6. zenbakia gehitzea. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“6. Artikulu honetan aipatzen den muga ez zaie honako hauei aplikatuko:

a) Kreditu entitateei eta aseguratzaileei. Hala ere, zergen finkapenaren araubidean, izaera hori ez duten entitateekin batera, tributatzen duten kreditu entitateen edo aseguratzaileen kasuan, artikulua honetan ezarritako muga kalkulatu da azken entitate horien etekin operatiboa eta finantza gastu garbiak kontuan harturik.

Ondorio horietarako, kreditu entitateen tratamendua izanen dute entitate horiek zeinetan boto eskubidea, zuzenean edo zeharka, osorik kreditu entitateei dagokien, baldin eta beren jarduera bakarra bada merkatuan finantza tresnak jaulkitzea eta kolokatzea, entitate horien erregulazio kapitala eta finantzazioa sendotzeko.

b) Entitatearen iraungitzea gertatzen den zergaldian, salbu hori gertatzen bada X. tituluko IX. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren babespeko berregituratze eragiketa baten ondorioz, edo talde fiskal baten barnean egiten bada eta iraungitako entitateak oraindik finantza gastuak kengarri baldin baditu hartan sartzeko unean.”

Hiru. 41.1. artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“1. Zerga-oinarria 100eko 45 murriz daiteke baldin eta kantitateak, ekitaldiko kontabilitateko mozkinetakoak izanik, inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira, atal honetan azaltzen diren baldintzetan eta beharkizunekin.

Ehuneko hori 100eko 60koa izanen da, 50.1.b) artikulua azken lerroaldean xedatutakoarekin bat enpresa txiki izaera duten subjektu pasiboen kasuan.”

Lau. 42.1. artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“1. Inbertsioetarako Erreserba Bereziari egin beharreko zuzkidura gutxienez 50.000 euro izanen da ekitaldi ekonomikoan.

Halaber, entitateak berak ekitaldia ixtean dituen funts berekiak, zeinen mozkinekin hornitu baitzen Erreserba Berezia, zuzkidura egiten den ekitaldian hori adina igoko dira, eta gehikuntza horri hurrengo ekitaldietan eutsi beharko zaio, 44. artikuluko 4. idatz-zatian aipatzen den hiru urteko epea bukatu arte, salbu eta kontabilitateko galeren ondorioz gutxitzen bada.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen betebeharraren ondorioetarako, entitatearen funts berekien artean ez dira sartuko ekitaldi bakoitzeko emaitzak.”

Bost. 44.4. artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“4. Behin erreserba gauzatzeko epea bukatzen denetik hiru urte iraganik, Erreserba Bereziari dagokion zenbatekoa honako hauei aplikatzen ahalko zaie:

a) Kontabilitateko emaitza negatiboak deuseztatzeko.

b) Kapital soziala handitzeko.

c) Borondatezko erreserbak eta legezko erreserbak.

Aplikazio hori egindakoan, aplikatutako kopuru hori adina gutxitzen ahalko dira entitatearen funts berekiak, 42.1 zenbakian ezarritako betebeharraren ondorioetarako, hots, funts berekiak erreserba bereziari egindako zuzkidura adina handitu behar diren ondorioetarako.”

Sei. 62.2. artikulua. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“2. Espainiako egoiliarra ez den entitate bateko partaidetza eskualdatuta lortutako errenta salbuesia egonen da, baldin eta aurreko zenbakian ezarritako beharkizunak betetzen badira. Errentari araubide bera aplikatuko zaio baldin eta bazkidea berezita edo entitatea desagertuta lortzen bada errenta.

Eskualdaketa gertatzen den egun berean bete beharko da aurreko zenbakiko a) letran aurreikusitako beharkizuna. Partaidetza edukitzen den zergaldi guztietan bete behar dira b) eta c) letretan aurreikusitako beharkizunak, guztiak.

Nolanahi ere, b) edo c) letretan aurreikusitako beharkizunak betetzen ez badira partaidetza edukitzen den zergaldi batean edo batzuetan, zenbaki honetan aurreikusitako salbuespena ondoko arauekin bat aplikatuko da:

1. Partaidetza eduki den bitartean entitate partaidetuak sortutako mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari dagokion errentaren zatiari dagoki-

onez, salbuetsizat jotzen da zati hori zeina bat datorren aurreko zenbakiko b) eta c) letretan ezarritako beharkizunak bete diren zergaldietan sortutako mozkinekin.

2. Partaidetza eduki den bitartean entitate partaidetuak sortutako mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari ez dagokion errentaren zatiari dagokionez, ulertuko da linealki sortu dela, salbu kontrakoa frogatzen bada, partaidetza eduki den bitartean, eta salbuetsizat jotzen da zati hori zeina proportzioan bat datorren aurreko zenbakiko b) eta c) letretan ezarritako beharkizunak bete diren zergaldietan izandako partaidetzarekin.

Aurreko lerroaldean aurreikusitako salbuespenerako eskubidea ez duen errentaren zatia zerga-oinarrian sartuko da, eta 60. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea izanen du. Nolanahi ere, aipatutako artikulua 1 zenbakiko a) letran ezarritakoaren ondorioetarako, hartuko den bakarra da zerga honen balioidea edo antzekoa den kargarengatik atzerrian benetan ordaindutakoa, salbuespenerako eskubiderik ez duen errentari proportzioan dagokion zatiarengatik, hain zuzen ere aurreko zenbakiko b) edo c) letretan ezarritako beharkizunak bete ez diren zergaldiei dagokien errentari dagokion zatiarengatik, partaidetzaren eskualdaketa osotara lortutako errentari dagokionez.

X. tituluko IX. kapituluko araubide bereziko arauekin bat baloratu denean egoiliarra ez den entitateko partaidetza, zenbaki honetako d) letran ezarritako baldintzetan aplikatuko da salbuespena.

Ez da salbuespena aplikatuko baldin eta esku-ratzaileak erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean badu egoitza.

Ondoko kasuetan, salbuespenaren aplikazioak ondoren adierazten diren berezitasunak izanen ditu:

a) Egoiliarra ez den entitateak, zuzenean edo zeharka, partaidetzak dituenentz Espainiako egoiliarren diren entitateetan, edo aktiboak dituztenentz lurralde horretan, eta batzuen eta besteen arteko baturak merkatuan duen balioa handiagoa denean aktibo guztien balioaren 100eko 15 baino.

Kasu horretan, salbuespena zati honetara mugatuko da: partaidetza eduki den bitartean entitate partaidetuak sortutako mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari dagokion errentaren zatira, hain zuzen ere aurreko zenbakiko b) eta c) letretan ezarritako beharkizunak batera bete diren zergaldietako partaidetza edukitzeari dagokionez. Halaber, aurreko zenbakiko b) eta c) letretan ezarritako

beharkizunak bete ez diren zergaldiei dagokien zatiarengatik, 60.1.b) artikuluan ezarritako ondorioetarako, kontuan hartuko den bakarra da zergaldi horietako partaidetza edukitzarekin bat datorren errentaren zatiarengatik Nafarroako Ogasun Publikoari ordaindu beharko litzaiokeen kuota osoaren zenbatekoa.

b) Zerga arloan kengarria den eskualdatutako partaidetzan balio-zuzenketaren bat egin duenean subjektu pasiboak.

Kasu horretan, balio-zuzenketa hori, betiere, subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartuko da.

c) Entitate ez-egoiliarreko partaidetza alde zuzenetik beste entitate batek eskualdatu duenean, eta entitate horrek betetzen dituenentz Merkataritza Kodearen 42. artikulua azaldutako baldintzak subjektu pasiboarekin batera sozietate talde bereko kide izateko, errenta negatiboa izanik eta errenta hori zerga honen zerga-oinarrian sarturik.

Kasu horretan, partaidetzaren eskualdaketa lortutako errenta positiboa zerga-oinarrian sartuko da, taldeko beste entitateak lortutako errenta negatiboaren zenbatekoa arte.

Era berean, partaidetza eduki den zergaldi batean edo batzuetan ez badira aurreko zenbakiko b) edo c) letretako beharkizunak bete, zenbaki honen hirugarren eta laugarren lerroaldeetan xedatutakoa aplikatuko da, kontuan izanik taldearen barnean partaidetza eduki den zergaldi guztia, taldeko beste entitateak izandako errenta negatiboaren zenbatekoan gutxitutako errenta positiboari dagokionez.

d) Entitate ez-egoiliarreko partaidetza X. tituluko IX. kapituluko araubide bereziko arauen arabera baloratu denean, baldin eta arau horiek aplikatzeak, baita aurreko eskualdaketa batean ere, ekarri badu errentak ez sartzea zerga honen zerga-oinarrian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian, betiere honako hauen ondoriozkoak izanik:

1.) Egoitza Espainiako lurraldean duen entitate bateko partaidetzaren eskualdaketa.

2.) Zergaldi batean behintzat aurreko 1. zenbakiko b) edo c) letretako beharkizunak betetzen ez dituen entitate ez-egoiliar bateko partaidetza eskualdatzea.

3.) Beste ondare-elementu batzuen ekarpena, ez-diruzkoa.

Kasu horretan, salbuespena aplikatuko zaio, bakarrik, batetik entitate ez-egoiliarreko partaidetzaren eskualdaketa balioaren eta bestetik enti-

tate eskualdatzaileak hura eskuratu zuen uneko merkatuko balio normalaren arteko diferentzia positiboari dagokion errentari. Hori dena, idatz-zati honetan ezarritako moduan. Eskualdaketa lortu-tako gainerako errenta baldintza berberetan sartuko da zergaldiko zerga-oinarrian.”

Zazpi. 64.c) artikulua, lehenbiziko leerroaldea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoa 6.000 euro baino txikiagoa ez izatea eta zenbateko horrek ekitaldi bakoitzean ondoko bi kopuru hauekiko bat gainditzea:”

Zortzi. 71.1. artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“1. Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 4.200 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan. Horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hamabi hilabeteen kontratu mota hori zuen plantillaren batez bestekoa. Ondorio horietarako, sortu berri diren entitateen kasuan, eratu aurreko aldiaren zero langile izan dituztela zenbatuko da.

Plantillan izan den batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona dauden urtean lan-kontratu mugagabea dutenak. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen araberrako proportzioan kontatuko dira.”

Kenkari osoa ez da izan honako hau baino handiagoa: zergaldi horretan entitateko plantilla osoaren batez bestekoan izaten den gehikuntzari (pertsona urteko) dagokiona, kontratazio modua edozein izanik ere.”

Bederatzi. 71.6. artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“6. Aurreko zenbakietako kenkariak bateraezina dira elkarren artean.

Aurreko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoarekin bat egoki diren kenkariak izateko, beharrezkoa izanen da kenkaria sortzen duen zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa txikiagoa izatea kenkaria sortu zuen zergaldia bukatu eta ondo-ondoko hamabi hilabete bategi bestekoa baino, edo horren berdina.

Kenkaria sortu duen zergaldiko plantillaren batez besteko osoa handiago baldin bada zergaldi horren ondoko hamabi hilabete bategi bestekoa baino, subjektu pasiboak dagokion

kenkaria galduko du, hau da, konparaturik batetik sortu duen kenkaria eta bestetik geroko hamabi hilabete horien plantilla osoaren batez bestekoaren arabera aterako litzatekeen kenkaria, diferentzia horri dagokion zenbatekoa galduko du.

Aurreko leerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako, kenkaria aplikatu baldin bada plantillaren batez besteko osoa mantendu beharreko hamabi hilabete bategi besteko osoa baino lehen, hamabi hilabete horiei dagokien aitortzearen ordaindu behar da desegoki aplikatutako zenbatekoa, dagozkion berandutza interesekin batera.”

Hamar. 80.1 artikuluko bigarren leerroaldea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Zergaldia bukatu eta bosgarren hilabete bategi egunean hasiko da aitortzearen aurkezteko epea, eta zergaldia bukatu eta zazpigarren hilabete bategi egunean bukatuko.”

Hamaika. Zazpigarren xedapen gehigarria, k) letra gehitzea. Maiatzaren 11ko 17/2012 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa betez egiten diren aktibo eta pasiboen eskualdaketen ondorioetarako.

“k) Finantza sektoreko higiezin aktiboak saneatu eta saltzeari buruzko maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako zerga araudia.”

Hamabi. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. 2012. eta 2013. urteen barnean hasten diren zergaldietarako.

“1. 21. artikulua aipatutako merkataritza funtsari dagokion kenkariak zenbatekoaren 100eko 2ko gehieneko muga izanen du urtean.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboari, 50.1.b) artikuluko beharkizunak betetzen badituzte, ez zaie aplikatuko aurreko leerroaldean xedatutakoa.

2. 21.2. artikulua aipatutako bizitza erabilgarri mugagabeko ibilgetu ukiezinari dagokion kenkariak zenbatekoaren 100eko 5eko gehieneko muga izanen du urtean.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboari, 50.1.b) artikuluko beharkizunak betetzen badituzte, ez zaie aplikatuko aurreko leerroaldean xedatutakoa.

3. Batetik entitate eskuratzailerak partaidetza eskuratzeko izan zuen prezioaren eta bestetik entitate eskualdatzailearen funts berekien arteko diferentziaren kenkariak, baldin eta hura ez bazaie egotzi 139.3 artikuluan aipatutako ondasun eta

eskubide eskuratuei, zenbatekoaren 100eko 2ko gehieneko muga izanen du urtean.”

Hamahiru. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria gehitzea. 2012. urtean sorrarazten diren dibidenduen eta 2012. urtean egindako balioen eskualdaketen ondoriozko errenten ondorioetarako.

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian jaso ez izanik, Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen funts berekien balio adierazgarriak eskualdatzearen ondoriozko iturri atzerritarreko dibidendu eta errenten gaineko karga berezia.

1. Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen dibidenduen edo mozkinen partaidetzen kasuan, 62.1 artikulua a) letran ezarritako beharkizuna betetzen bada eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria aplikatzekoa ez bada, posible izanen da zerga honen zerga-oinarria ez sartzeari, subjektu pasiboak aukeratzen badu karga berezi baten bidez atxikitzea.

Sorrarazitako dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoak osatuko du zerga-oinarria, eta ez da kengarria izanen partaidetzaren balioaren nariaduragatik izan daitekeen galera, karga berezi honen xedeko mozkinen banaketaren ondoriozkoa.

2. Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen funts berekien balio adierazgarriak eskualdatzearen ondoriozko errentak, baldin eta 62.1.a) artikuluan ezarritako beharkizuna betetzen bada eskualdaketa egiten den egunean eta ez bada aplikatzekoa hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria, eskualdaketa 2012. urtean egiten bada, posible izanen da zerga honen zerga-oinarria ez sartzeari, subjektu pasiboak aukeratzen badu aurreko zenbakian aurreikusitako karga berezi baten bidez atxikitzea.

Kasu horretan, eskualdaketa lortutako errentak osatuko du zerga-oinarria, baita eskualdatutako partaidetzaren gaineko balioaren edozein zuzenketaren itzulketak ere, partaidetza eduki den denboran kenkari izaera izan badu.

Nolanahi ere, karga berezi hau ez da aplikatzekoa izanen 62.2 artikulua a) letran aipatutako Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen funts berekien balio adierazgarrien eskualdaketen kasuan.

3. Karga bereziaren tasa 100eko 10 da.

Beti ere, Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen funts berekien balioen eskualdaketen kasuan, partaidetza eduki zen bitartean kengarri-

tzat hartu zen edozein balio-zuzenketarekin bat datorren zerga-oinarriaren zatiak subjektu pasiboari dagokion karga tasa izanen du.

Dibidenduek edo mozkinetako partaidetzek eta Espainian egoitzarik ez duten entitateen funts berekien balio adierazgarrien eskualdaketen ondoriozko errentek, karga berezi hau dutenek, ez dute sortuko 60. eta 61. artikuluetan aurreikusten den nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatzeko eskubiderik.

4. Karga berezi honi dagokion kontabilitate-gastua ez da kengarria izanen sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria.

5. Espainian egoitzarik ez duten entitateen dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen kasuan, akziodunen batzar orokorrak edo organo baliokideak mozkinak banatzeko erabakia hartzen duen egunean sorraraziko da karga berezia.

Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen funts berekien balio adierazgarriak eskualdatzen diren kasuan, eskualdaketa egiten denean sorraraziko da karga berezia.

6. Sorrarazpen egunaren ondoko 25 egun naturaleko epean autolikidatu eta ordaindu behar da karga berezia. Dena dela, adierazitako epea hastean ez bada onetsi hurrengo zenbakian azaltzen den aitorten erredua ezartzeko foru agindua, aipatutako agindua indarrean sartu eta ondoko 25 egun naturaleko epean aurkeztuko da aitortena.

7. Karga berezi honen aitorten erredua Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru agindu bidez onetsiko da, non ezarriko baitira aitortena aurkezteko modua eta tokia.”

Hamalau. Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea. Pizgarriengatik kenkarien mugak. 2013an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Pizgarriengatik kenkarien mugak.

72.3 artikulua lehen lerroaldean aurreikusitako muga aplikazioan, honako hau hartuko da kontuan: alde batera utzita 63. artikuluan ezarritako kenkariak, zeinak arauz ezartzen diren sormen berriko entitateen jardura hasi arte egin baitira, eta 66. eta 71. artikuluetan ezarritakoak, VI. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako kenkariak ez dute gaitutuko, denek batera, honako hau: hobarietan eta kenkarietan kuota osoa gutxitzearen (barneko eta nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko) ondoriozko kuota likidoaren 100eko 25.”

**Hamabost.** Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2013an hasten diren zergaldi-etarako ondorioekin.

“Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Likidazio-oinarri negatiboekin zerga-oinarri positiboa murrizteari jartzen zaizkion mugak.

40. artikulua aipatutako zerga-oinarri positiboa-aren murrizketan, honako berezitasun hauek hartuko dira kontuan:

1. Zergaldian negozio-zifraren zenbateko garbia gutxienez hogeita milioi euro baina hirurogei milioi euro baino gutxiago izan duten subjektu pasiboen kasuan, murrizketaren aurreko zerga-oinarriaren 100eko 60 izanena da zerga-oinarria murrizteko muga.

2. Zergaldian negozio-zifraren zenbateko garbia gutxienez hirurogei milioi euro izan duten subjektu pasiboen kasuan, murrizketaren aurreko zerga-oinarriaren 100eko 50 izanena da zerga-oinarria murrizteko muga.

3. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrekin bat zehaztuko da negozio-zifra, eta, kalkulatzeko, 50.1.b) artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

4. Betiere, zerga-oinarri positiboa milioi bat euro murrizten ahalko da.”

**Hamasei.** Berrogeita laugarren xedapen iragankorra gehitzea. 2013an hasten diren zergaldie- tarako ondorioekin.

“Berrogeita laugarren xedapen iragankorra. Inbertsioetarako erreserba berezia: funts berekien gehikuntza mantentzeko eta zenbatekoa aplikatzeko epea hiru urtera murriztearen araubide iragan- korra.

Honako hauei aplikatuko zaie epe berria, hiru urtekoa, 42.1 eta 44.4 artikuluan ezarritakoa, funts berekien gehikuntza mantentzeko inbertsioetara- ko erreserba bereziaren zenbatekoan edo erreser- ba horretako zenbatekoa aplikatu ahal izan dadin: 2012ko abenduaren 31n aipatutako 42.1 eta 44.4 artikuluen jatorrizko idazketan ezarritako bost urte- ko epeko beharkizuna betetzeko duten subjektu pasiboei.

Aitzitik, epe berria ez zaie honako hauei aplika- tuko: 2012ko abenduaren 31n bost urteko epea bete ez dutenei, inbertsioetarako erreserba berezi- aren zenbatekoan funts berekien gehikuntza man- tentzeari dagokionez, edo, behar bada, erreserba horretako zenbatekoa aplikatu ahal izateari dago- kionez.”

**Hirugarren artikulua.** Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Tributuei buruzko abendu- aren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko manuek honako testua izanen dute:

**Bat.** 52.3. artikulua.

“3. Epez kanpo eta aurretik errekerimendurik egin gabe aurkeztutako aitorpen-likidazioei edo autolikidazioei dagozkien sarrerek eta epez kanpo eta aurretik errekerimendurik egin gabe aurkeztu- tako aitorpenen ondoriozko likidazioek honako errekar- gu hauek izanen dituzte:

a) Aurkezteko eta diru-sarrera egiteko boronda- tezko epea bukatu ondoko hiru hilabeteko al- dian, 100eko 5eko errekar- gua ezarriko da. Berandutza interes- a eta bestela eska zitezkeen zehapenak ez dira aplikatuko.

b) Aipatu hiru hilabeteak iraganik, baina aur- kezteko eta diru-sarrera egiteko boronda- tezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasatu lehen, 100eko 10eko errekar- gua ezarriko da. Berandutza interes- a eta bestela eska zitezkeen zehapenak ez dira aplikatuko.

c) Aurkezteko eta diru-sarrera egiteko boronda- tezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasa- tuta, errekar- gua 100ko 20koa izanena da, eta, ondorioz, bazter geldituko dira beste kasuren bate- an jarriko ziratekeen zehapenak. Honelako kasue- tan berandutza interesak eskatuko dira, hamabi hilabete- ko epea bukatzen denetik diru-sarrera egin bitarteko denboran sortuak.

Itzulketa batean zenbateko bat lortzen bada eta zenbateko hori handiagoa bada geroago aur- keztu den autolikidazio baten ondoriozko zenbate- koa baino, errekar- gua bidezkoa ez den itzulketa zatiaren gainean igorriko da. Autolikidazio baten ondoriozko itzulketa bat lortzen denean, eta gero- ago aurkeztutako autolikidazio baten ondorioz kuota bat ordaindu behar bada, errekar- gua hona- ko honen gainean egingen da: bidezkoa ez den itzulketa kantitatea gehi aipatutako autolikidazioa- ren ondoriozko kuota. Aurreko kasuetan bezala jokatuko da tributu aitorpenetatik eratorritako liki- dazioen ondoriozko itzulketen kasuan.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren ondo- rioetarako, bidezkoa ez den itzulketako zenbateko- aren errekar- gua zehazteko epea honela zenbatu- ko da: itzulketaren egunetik geroko autolikidazioaren aurkezpeneko eguna arte. Ordea, geroko autolikidazioaren ondorioz ordaindu behar den kuotari dagokion errekar- gua zehazteko epea honela zenbatuko da: aurkeztu eta ordaintze-

ko borondatezko epea bukatzen denetik aipatutako autolikidazioa aurkeztu den eguna arte.

Errekargu horiek ordainarazpen aldiko errekar-guekin bateragarriak izanen dira, baldin eta tributu ordaintzera beharturik daudenek ez badute dirua sartzen aitorpen-likidazioa edo epetik kanpoko autolikidazioa aurkeztearekin batera.

Idatz-zati honetan ezarritako errekar-guak aplikatzekoak izan daitezten, epez kanpo aurkeztutako aitorpen-likidazioek edo autolikidazioek berariaz identifikatu behar dute zein zergaldiri dagozkion, eta zergaldi horri buruzko datuak bakarrik eduki beharko dituzte.”

Bi. 66. artikulua, 7. idatz-zatia gehitzea.

“7. Zerga administrazioak ulertzen badu ezen tributudunak, egiaztatze edo ikerketa prozedura bati buruz jakinarazi aurretik, bere tributu-egoera erregularizatu duela, tributu-zorra osoki aitortuz eta ordainduz, erregularizazio horrek erantzukizun penaletik libratuko du, nahiz eta bere garaian egindako arau-haustea Ogasun Publikoaren aurkako delitua izan daitekeen, eta Administrazioak prozedura administratiboari segida eman diezaiok, agente judizialari edo fiskaltzari erruduntasun testigantza eman gabe.

Halaber, aurreko lerroaldean aurreikusitako erregularizazioaren ondorioak aplikatzekoak izanen dira tributu-zorrak ordaintzen baldin badira behin hura zehazteko Administrazioak duen esku-bidea preskribatu denean.”

Hiru. 76.1. artikulua.

“1. Zerga arloko arau-hauste larriengatik 69.1 artikuluan aipatzen diren kopuruen 100eko 75 eta 100eko 180 bitarteko diruzko isun proportzionala jarriko da, salbu idatz-zati honen bigarren eta hirugarren lerroaldeetan eta hurrengo artikuluan xedatutako kasuan, deusetan galarazi gabe 71.3. artikuluan finkatutako murrizketa egitea.

Tributudunak ez baditu epe barnean ordaintzen gero aurkeztutako autolikidazio batean sartutako edo erregularizatutako tributuak edo konturako ordainketak, betiere 52.3. artikulua azken lerroaldeko baldintzak bete gabe, ordaindu gabeko zenbatekoen 100eko 40ko diruzko isun proportzionala jarriko da, deusetan galarazi gabe 71. artikulua 3. idatz-zatian finkatutako murrizketa. Lerroalde honetan aurreikusitakoa ez da aplikatzekoa izanen baldin eta aurkeztutako autolikidazioan sartu badira alde aurretik tributu administrazioaren errekerimendu baten jakinarazpena izan duten kontzeptu eta zergaldietako diru-sarrerak.

Zerga administrazioiko organo batek, eskumetik ez izanik dagokion zergako tributu likidazioko egintza administratiboak emateko, errekerimendurak egiten baditu eta errekerimendu horien ondorioz zerga arloko arau-hauste larriagatiko zehapen prozedurarik irekitzen bada, 100eko 40tik 100eko 120rako izanen da 69.1 artikuluan aipatzen den diruzko isun proportzionala, galarazi gabe 71.3 artikuluan ezarritako murrizketa.

68.c) artikuluko bigarren lerroaldean aurreikusitako zerga arloko arau-hauste larria eginez gero, bidegabeki eskatutako diru-kopuruaren 100eko 15eko diruzko isun proportzionala jarriko da, deusetan galarazi gabe 71.3 artikuluan finkatutako murrizketa.”

Lau. 105.1.c) artikulua.

“c) Elkarlana, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileekin eta Gizarte Segurantzako Entitate Kudeatzaileekin eta zerbitzu komunekin, Gizarte Segurantzako kotizazioan eta kuoten bilketan gertatzen den iruzurraren kontrako borrokan eta sistemaren kargurako prestazioak lortzeko eta erabiltzeko iruzurraren kontrakoan; orobat, Osasun Sistema Nazionalaren prestazioetan erabiltzaile bakoitzak egin beharreko ekarpenen maila zehazteko elkarlana.

Era berean, elkarlana Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuarekin, Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzaileei eta onuradunei itzultzeko osasun arloko ekarpenen soberakinak.

Halaber, elkarlana Nafarroako Gobernuko dagokion departamentuarekin, zehazteko erabiltzaile bakoitzari zer ekarpen-portzentaje dagokion “erabilera bereziko” Osasun Laguntza Zerbitzua- ren prestazioetarako.”

Bost. 142.1. artikulua.

“1. Tributudunek eta beren oinordekoek edo kausadunek eskubidea izanen dute Foru Komunitatearen Diruzaintzan egindako diru-sarrera ez bidezkoak (zerga-zorrak ordaintzean) itzultzeko, eta 50.2.c) artikuluan araututako berandutza interesa aplikatuko da. Inoiz ere ez da itzuliko 66.7 artikuluan aurreikusitako kasuetan erantzukizunetik libratzeko ordaindutako kantitatek.”

Sei. Hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Elkarren laguntzari buruzko zerga araubidea.

Estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 5.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, araubide berekirik ezean, Nafarroan aplikatzekoa izanen da Tributuei buruzko abendua-



ren 17ko 58/2003 Legearen III. tituluko VI. kapitulu- an elkarren laguntzari buruz aurreikusitako zerga araubidea, baita arau horretan arlo horri buruz dauden gainerako xedapenak ere, eta, zehazki, honako hauei buruzkoak: berandutza interesak kobratzea, ordainketa geroratzea eta zatikatzea, preskripzio epea etetea, kredituen lehentasuna eta bermeak, tributu arloko datuak lagatzea, proben bitartekoak eta balorazioa, kautelazko neurriak hartzea eta ordainarazpen aldian errekariguak sorraraztea.”

Zazpi. Hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Tributu zorra geroratzeko edo zatikatze 2013an egiten diren eskaerei aplikatzen zaizkien neurri berariazkoak.

Tributu zorra geroratzeko edo zatikatze 2013an egiten diren eskaerei, betiere dirua biltzeko kudeaketa lana Ekonomia eta Ogasun Departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

1. Geroratu beharreko zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa denean ez da bermerik eskatuko, betiere geroratu beharreko zorrari dagokion zerga edo kontzeptua ez badago sarturik aipatutako erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenetan, gerorapenak hilabeteko maiztasuna badu eta ondoko bi inguruabarretako batean badago:

a) epea hiru urtetik gorakoa ez izatea eta eska-tzaileak tramitatu aurretik sartzan badu geroratze-ko eskatutako zorraren 100eko 30.

b) epea bi urtetik gorakoa ez izatea eta eska-tzaileak tramitatu aurretik sartzan badu geroratze-ko eskatutako zorraren 100eko 20.

2. Bai borondatezko epean bai ordainarazpen aldian egindako geroratze edo zatikatze eskaere- tan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zen- batekoa 12.000 eurotik beherakoa bada, urtebete arteko geroratzea eta hilabeteko maiztasuna iza- nik, ez da bermerik eskatuko, ezta tramitatu aurre- tik egin beharreko dagokion ordainketa egitea ere.

3. Borondatezko epeko zorren kasuan, gerora- tze edo zatikatze eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta zerga zorren lau geroratze edo gehiago badaude edo Nafarroako Ogasun Publikoaren beste eskubide ekonomiko batzuen diru-sarrer- en lau geroratze edo gehiago badaude erabat kitatu gabe, salbu geroratzeko eskatutako zergak bermatzen badira edo aurrekoak bermaturik badaude, soil-soilik aipatutako Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin.”

**Laugarren artikulua.** Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga- ren Testu Bategina.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatzen diren zergapeko egintzetan ondorioa izanen dute- larik, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdake- ten eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bategineko manuek honako testua izanen dute:

Bat. 8.1.c) Artikulua

“c) 100eko 4, ondasun higigarrien eta animalien eskualdaketa baldin bada, baita haien gaineko eskubide errealak eratu eta lagatzea ere, salbu berme-eskubide errealak, uztailaren 6ko 4/2012 Legean (uztailaren 6ko 4/2012 Legea, turismo- ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kon- tratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta tributu arloko arauari buruzkoa) jasotako eskubide- en eskualdaketa eta idatz-zati honen letretan aurreikusi gabeko beste edozein lotutako egintza.”

Bi. 31. artikulua.

“Aurreneurritzko idatzoharrak lotuta daude beren xedea eskubide edo interes baloragarri bat denean eta ez dituenean ofizioz agindu agintaritz- a judizial edo administratibo eskudunak.”

Hiru. 35.II artikulua, 24. idatz-zatia gehitzea.

“24. Finantza Sektoreko Higiezin Aktiboak Saneatu eta Saltzeari buruzko maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Lege Dekretuaren 8.2 artikulua, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan aurreikusitako balioen eskualdaketetako salbuespenari dagokio- nez”

**Bosgarren artikulua.** Udal tributuak.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162.1 artikulua honelako idazketa izanen du:

“1. Zerga eskatuko da tarifa hauei jarraikiz:

Kuotak:

a) Turismoak:

– 8 zaldi fiskal baino gutxiago: 18,79 euro.

– 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartean: 52,85 euro.

– 12 zaldi fiskal baino gehiago eta gehienez 16: 112,74 euro.

– 16 zaldi fiskal baino gehiago: 140,96 euro.

b) Autobusak:

– 21 leku baino gutxiago: 131,52 euro.

– 21 lekutik 50era bitartean: 187,91 euro.

– 50 leku baino gehiago: 234,90 euro.

c) Kamioiak:

– 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 65,83 euro.

– 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 131,52 euro.

– 2.999 kg-tik gora eta 9.999ra bitarteko karga erabilgarria: 187,91 euro.

– 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 234,90 euro.

d) Traktoreak:

– 16 zaldi fiskal baino gutxiago: 32,29 euro.

– 16 zaldi fiskaletik 25era bitartean: 64,54 euro.

– 25 zaldi fiskal baino gehiago: 128,94 euro.

e) Atoiak eta erdi-atoiak:

– 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 32,94 euro.

– 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 65,83 euro.

– 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 131,52 euro.

f) Bestelako ibilgailuak:

– Ziklomotorrak: 4,74 euro.

– 125 cc-ra arteko motozikletak: 7,11 euro.

– 125 cc-tik gora eta 250 cc-ra bitarteko motozikletak: 11,78 euro.

– 250 cc-tik gora eta 500 cc-ra bitarteko motozikletak: 23,23 euro.

– 500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak: 46,47 euro.

– 1.000 cc-tik gorako motozikletak: 92,94 euro.”

**Seigarren artikulua.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru

Legeren manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

**Bat.** Zergaren tarifen lehenbiziko atalaren 981.3 epigrafean ohar bat erantsi da, honako eduki hau duena:

“Oharra: urtean zortzi hilabete baino gutxiagoz irekitzen diren jolas-parkeen kasuan, epigrafe honetan adierazitako kuotaren 100eko 70 izanen da beren kuota.”

**Bi.** Jarraibidearen 14.1.G).b).2 araua:

“2. Denboraldiko jardueretarako erabiltzen den (postuekin eta antzekoekin bide publikoa okupatuz) azaleraren 100eko 40.

Establezimendua urte osoan zabalik ez egoteagatik aurreikusi bada jarduera batzuen tarifetan kuotaren murrizketa egitea, dagokion epigrafean edo taldean, hartan portzentaje bat aplikatuz, portzentaje hori lokalen azalerari ere aplikatuko zaio.”

**Hiru.** Jarraibidearen 14. arauan 5. atal bat gehitu da.

“5. Denboraldiko jarduerak, edo eztablezimenduak irekita urtebete baino gutxiago dituztenak.

Denboraldiko jardueretan, edo eztablezimenduak irekita urtebete baino gutxiago dituztenetan, jarduerako bajako aitorpenaren aurkezpena bateraezina izanen da aurreikusitako kuotako murrizketaren aplikazioarekin, hots, kasu horietarako tarifetan eta arau honen 1.G).b).2 atalean aurreikusitakoekin.”

**Zazpigarren artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen ondoko artikuluek honako testu hau izanen dute:

**Bat.** 26. artikulua.

“26. artikulua. Zerga-onurak.

1. Tasatik salbuetsirik daude:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek pagatutako ordainsarien ziurtagiriak egitea, frogagiri gisa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin loturik.

b) Administrazioako langileek beren gorabeherei buruz eskatzen dituzten dokumentuen ziurtagiri eta konpultsak.

c) Ziurtagiriak egitea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako beste departamentu batek edo beste erakunde autonomo batek berariaz eskaturik.

d) Internet bidez jaso daitezkeen ziurtagiriak luzatzea.

e) Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoek administrazioan sar-

tzeko hautapen-probetan onartzeko eskatzen dituzten dokumentuen konpultsak.

f) Hezkuntza departamentuaren menpeko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoek ziurtagiriak egitea eta dokumentuak konpultsatzea kategoría bereziko familia ugarietako kideei.

2. Kategoría bereziko familia ugarietako kideei emandako zerbitzuengatik 1. idatz-zatiaren f) letrak aipatutako tasek 100eko 50eko hobaria izanen dute.”

Bi. 43. artikulua, 7. tarifa, 3. puntua.

	“3. Ustiatzeko baimena:	60”
--	-------------------------	-----

Hiru. 51. bis artikulua.

“51. bis artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Tasaren zergapeko egintza da su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuak ematea, bai interesdunek eskatzen dutenean bai ofizioz denean segurtasun arrazoiak direla-eta, betiere zerbitzua emateak subjektu pasiboari onura ekartzen badio, ondoko kasuetan:

a) Trafiko istripuak.

b) Larrialdietakoak ez diren laguntza teknikoak: eraikinetan suteen prebentziorako instalazioak berrikustea, tokietatik ura ateratzea, galtzadak garbitzea, ateak irekitzea, ura garraiatzea eta alarmak deskonektatzea.

c) Erreskate lanak toki arriskutsuetan edo bertara iristeko zailak direnetan, onuradunak zuhurtzirik gabe edo ausartegi jokatzearen ondorio denean.

d) Suteen kontrako zaintza, babesa eta alarmak, eta horiek itzaltzea.

e) Esku-hartzeak, honelakoetan: eraikinak edo instalazioak osoki edo neurri batean hondoratzea, eraikin-hondakinak, eraispenak, uholdeak, salbamenduak eta antzekoak.

2. Subjektu pasiboa.

Tasa honen zergapeko subjektu pasibotzat hartzen dira zerbitzuaren prestazioko onuradun gertatzen diren entitateak, erakundeak edo pertsona fisiko nahiz juridikoak. Zerbitzuaren onuradun bat baino gehiago bada, tasa proportzionalki egotziko da, kontuan hartuz haietako bakoitzaren alde egingdako lanetan erabilitako baliabideak, betiere txosten teknikoan oinarrituta, eta horrela banan-banan bereiztea ezinezkoa bada, parte berdina egotziko zaio bakoitzari.

Suteak itzaltzeko, eraikinetan esku hartzeko eta pertsonen osasun laguntza emateko zerbitzuetan, arriskuaren aseguruia egin duen entitatea edo sozietatea izanen da zergapekoaren ordezkaria.

3. Sorrarazpena.

Tasa sortuko da, hain zuzen ere, behar den taldea suhiltzaileen parketik edo aireko baliabideak kokatuak dauden tokitik ateratzen den unean berean.

Une hori hartuko da, ondorio guztietarako, zerbitzu prestazioaren hasieratzat.

4. Kuota.

Zerbitzua ematean erabili diren pertsona eta material unitateen arabera eta behar izandako denboraren arabera zehaztuko da tributu-kuota.

5. Tarifa.

a) Tasaren zenbatekoa honako zenbatekoen arabera zehaztuko da:

	Zenbatekoa orduko edo zatikiko (eurotan)	
1. Esku-hartzea, aritutako pertsona bakoitzeko		30,00
2. Ibilgailuen esku-hartzea	Autoeskala edo ibilgailu berezia (PMA, kimikoa, lantegia...)	90,00
	Autoponpa-tanke-anbulantzia	65,00
	Jeepa, furgioa edo autoa	30,00
	Motoponpa, elektroponpa, multzo hidraulikoa	4,50
	Txalupa motorduna	64,00
3. Baliabide materialak	Apar-hautseko 10 litroko	71,55
	Murgiltzeko ekipamendu osoa	8,95
4. Aireko baliabideen esku-hartzea	Osasun garraioko helikopteroa.	1.360,00
	Salbamendurako helikopteroa	1.400,00
	Basoetako suteetarako errefortzuko brigadaren helikopteroa	1.200,00

b) Zergapeko egintza eratzen duen prestazioa amaiturik, babes zibilaren arloan eskuduna den organoak tasaren likidazioa igorriko du, bertan zehazturik zenbat denbora eta baliabide erabili diren eta zein den haren zenbatekoa, atal honetan ezarritako tarifaren arabera.

#### 6. Salbuespenak.

1. ataleko b), c), d) eta e) letretako zerbitzuak salbuetsita daude tasa ordaintzetik, baldin eta zerbitzuaren eskaera edo prestazioa egiten bada onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, edo arrazoi ustekabekoengatik edo saihestezinengatik.

Salbuespen hori ezin da aplikatu, inolaz ere, baldin eta suteen kontrako neurrien arloan indarra duen araudia betetzen ez bada, edo eraikuntzek egiturazko kalteak badituzte, higiezina behar bezala ez mantendu eta ez kontserbatzeagatik sortuak.”

Lau. IV. kapitulua gehitzea VI. tituluari.

“IV. kapitulua. Tasa, tributu aitorpenen edo haren edukiaren erreprodukzio edo kopiagatik.

60. ter artikulua.

#### 1. Zergapeko egintza.

Alderdiak eskaturik, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak tributu aitorpenen edo haren edukiaren erreprodukzioa edo kopia paperean egitea da tasaren zergapeko egintza.

#### 2. Subjektu pasiboa.

Kasuan kasuko kopia edo erreprodukzioa eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

#### 3. Sorrazpena.

Subjektu pasiboak kopia edo erreprodukzioa eskatzean sorraziko da tasa.

#### 4. Tarifak.

Tarifa 0,10 eurokoa izanen da inprimatutako orrialde bakoitzeko.”

Bost. V. kapitulua gehitzea VI. tituluari.

“V. kapitulua. Tasa, tributu arloko berariazko ziurtagiriak luzatzeagatik.

60. quater artikulua.

#### 1. Zergapeko egintza.

Alderdiak eskaturik, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak tributu arloko berariazko ziurtagiriak paperean luzatzea da tasaren zergapeko egintza.

#### 2. Subjektu pasiboa.

Kasuan kasuko ziurtagiria eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

#### 3. Sorrazpena.

Subjektu pasiboak ziurtagiria eskatzean sorraziko da tasa.

#### 4. Tarifak.

Tarifak honako hauek dira:

2 euro, oro har, paperean luzatzen den ziurtagiri bakoitzeko.

Edonola ere, 5 eurokoa izanen da tarifa, papezko ziurtagiria ezin bada segituan luzatu, alde zurreko prestaketa egin behar denean hark igorpen automatikoko ereduarekin bat ez egiteagatik.”

Sei. VIII. tituluaren kapitulu bakarreko errubrika.

“I. kapitulua. Tasak, tituluak igortzeagatik eta beste kontzeptu batzuegatik.”

Zazpi. 99. artikulua, 8. tarifa.

“8. TARIFA	Hizkuntzen erdi mailako edo oinarrizko zikloko ziurtagiriak	
	1. Tarifa arrunta:	10,00
	2. 1. kategoriako familia ugaria:	5,00
	3. 2. kategoriako familia ugaria:	0,00”

Zortzi. II. kapitulua gehitzea VIII. tituluari.

“II. Kapitulua. Tasa, liburutegiko irakurlearen txartelaren bikoizketa egiteagatik.

99. ter artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Pertsona fisikoak eskaturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek liburutegiko irakurlearen txartelaren bikoizketa egitea da tasaren zergapeko ekintza.

2. Subjektu pasiboa.

Liburutegiko irakurlearen txartelaren bikoizketa

egitea eskatzen duten pertsona fisikoak dira subjektu pasiboak.

3. Sorrazpena.

Subjektu pasiboak liburutegiko irakurlearen txartela bikoiztea eskatzean sorrazpena da tasa.

4. Tarifa.

Tarifa 5 eurokoa izanen da liburutegiko irakurlearen txartelaren bikoizketa bakoitzeko.”

Bederatzi. 103. artikulua.

“103. artikulua. Tarifak.

1. Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak.

		EUROTAN
A)	Ospitaleratze zerbitzua duten zentroak:	
	Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea:	195
	Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena tramitatzea:	130
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	130
B)	Ospitaleratzetik gabeko zentroak:	
	Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea:	100
	Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena tramitatzea:	65
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	65
C)	Osasun arloko garraioa:	
	Anbulantzien osasun ziurtagiria tramitatzea:	65
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	65
D)	Osasun zentro eta establezimenduen osasun arloko publizitaterako baimena:	35
E)	Prestakuntza zentroak:	
	Desfibrilatzaileen inguruko ikastaroak emateko zentroetarako baimena:	35

## 2. Farmazia establezimenduak:

		EUROTAN
A)	Farmaziak:	
	Ezartzeko baimena:	225
	Farmazia bulegoa tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea:	150
	Titularra aldatzeko baimena:	75
	Jarduerak praktika onei lotuta egiten direla egiaztatzea:	225
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
B)	Gizaki eta/edo animalientzako botikak banatzeko biltegiak:	
	Ezartzeko baimena:	225
	Biltegia tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea:	190
	Titularra aldatzeko baimena:	75
	Banaketa ikuskatzea eta praktika onei lotzen zaiela egiaztatzea:	450
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
C)	Farmazia zerbitzuak:	
	Ezartzeko baimena:	225
	Farmazia zerbitzua tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea:	150
	Titularra aldatzeko baimena:	75
	Jarduerak praktika onei lotuta egiten direla egiaztatzea:	450
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
D)	Botika-kutzak eta botiken biltegiak:	
	Ezartzeko baimena:	125
	Ortopediak baimentzea:	75
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
E)	Pertsona edo/eta animalientzako medikamentuak eta haien printzipio aktiboak prestatzen dituen industria:	
	Fabrikazio onerako arauak betearazteko ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko:	450
	Publizitatea baimentzea:	125
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
	Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena:	350
	Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Hasierako baimena aldatzea:	100
F)	Kosmetikoak:	
	Zuzen fabrikatzeko arauak ikuskatu eta egiaztatzea. Ikuskatzeko eta/edo egiaztatzeko behar izan den egun bakoitzeko:	450
	Merkaturatzearen arduradunak erregistroan inskribatzea:	40
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75

		EUROTAN
G)	Osasun produktuak:	
	Optikak eta farmazia bulegoetako optika atalak baimentzea:	225
	Audio-protisien zentroak baimentzea:	225
	Ortopediak baimentzea:	225
	Hortz protisien laborategia baimentzea:	225
	Osasun produktuen publizitatea baimentzea:	125
	Lehenagoko ataletan sartu ez diren neurrirako osasun produktuak fabrikatzeko funtzionamendurako lizentzia:	
	- Ematea:	225
	- Baliozkotzea:	65
	- Aldatzea:	65
	Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpenaren baldintzak aldatzea:	75
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
	Osasun produktuen establezimenduen baimena baliozkotzea eta/edo aldatzea:	150
	Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpena tramitatzea:	150
H)	Laborategiak, botikak kontrolatu eta/edo garatzeko zentroak:	
	Laborategiak ikuskatzea eta praktika egokiei lotzen zaizkiela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko:	450
	Praktika kliniko egokien ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko:	450
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
I)	Bestelako jarduketak:	
	Farmaziako zentro eta produktuen gaineko txostenak ematea, interesdunak eskaturik:	125
	Jardunbide egokiak betetzen direla frogatzen dituzten ziurtagiriak , naziokoak zein nazioartekoak, ematea (NCF, BPL, BPC, BPD eta haien pareko beste batzuk):	100 (lehen ziurtagiria) 10 (jatorrizko kopia bakoitzeko)

## 3. Hileta-osasuna:

		EUROTAN
A)	Gorpu bat edo gorpuzkiak hobitik ateratzeko eta berriz ehorzteko baimena:	20
B)	Hobitik atera ez den gorpu bat Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena:	40
C)	Gorpuzkiak Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena:	20

## 4. Baldintza tekniko-administratiboak:

		EUROTAN
A)	Dokumentazio ofizialaren eginbideak, tituluaren erregistroa barne:	7
B)	Gidabaimena eta arma lizentzia eskuratzeko azterketa psiko-fisikoa:	Azterketa zentroetan aplikatzen dena.
C)	Berriemateak, informazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrari jakinarazi behar zaizkion beste jarduerak batzuk tramitatzea:	15
D)	Desfibrilatzaileak erabiltzeko gaitasunerako ziurtagiriak ematea:	3
E)	Lanbide kualifikazioa aitortzeko ziurtagiriak ematea:	10

## 5. Albaitari zerbitzuak.

A) Etxean hildako zerriak edo antzekoak aztertea: 12,16 euro.

B) Animalien osasun kontrola, ausikia gertatzen denean: 18,69 euro.

C) Zakurrak harrapatu, bildu eta zaintzeko tasak:

a) Zakurra Nafarroako Gobernuo Animaliak Babesteko Zentroan uztea: 35,00 euro.

b) Zakurra etxetik bildu eta Nafarroako Gobernuo Animaliak Babesteko Zentrora eramatea: 40,00 euro.

c) Zakurra harrapatu eta Animaliak Babesteko Zentrora eramatea: 60,00 euro.

d) Harrapatutako zakurra bere jabeari itzultzea: 60,00 euro gehi egonaldia eta txipa eta, beharrezkoa izanez gero, txertoa jartzeko gastuak.

e) Beste jabe batzuk adoptatutako zakurrak:

18,00 euro gehi egonaldia eta txipa eta, beharrezkoa izanez gero, txertoa jartzeko gastuak.

f) Zaintzeagatik egunean, eta gehienez ere 15 egunetan, ordaindu beharrezkoa: 3,00 euro.

Zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasen pagamenduak ez ditu egon daitezkeen zehapenak inola ere galaraziko.

D) Elikagaiak esportatzeko albaitarien ziurtagiri ofiziala: 19,85 euro.

E) Albaitarien jarduketaren zezen ikuskizunetan (albaitari bakoitzeko):

a) Zezenketak eta pikatzaileekiko nobilladak:

– Iruñeko zezen plazan: 238,60 euro.

– Beste plaza batzuetan: 179,00 euro.

b) Bestelako zezen ikuskizunak:

– Iruñeko zezen plazan: 165,50 euro.

– Beste plaza batzuetan: 119,30 euro.



		EUROTAN
A)	Hileta zerbitzuetako sistema aurrefabrikatuen homologazioa	30
B)	Igerilekuen Osasun-kontrolako Erregistro-liburua	10
C)	Hozte-dorreak eta lurrin-kondentsadoreak jartzeko baimena tramitatzea	30
D)	Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden Erregistro Ofizialean inskribatzea edo inskripzioa aldatzea	30
E)	Pestizida Arriskutsuen Mugimenduen Liburu Ofiziala saldu eta eginbidetzea.	16"

Hamar. 119. artikulua.

“119. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera tasa eskatuko da:

1. TARIFA	Salgaien garraioa:	
	1.1. Salgaien garraio publiko edo pribatu osagarriko baimenak ematea, birgaitzea, bisatzea edo aldatzea:	27 euro ibilgailu bakoitzeko
	1.2. Ibilgailu baten matrikulatzearen edo titulartasuna aldatzearen aurreko ziurtagiria ematea, garraiorako baimena eman gabe:	9 euro ziurtagiri bakoitzeko
2. TARIFA	Bidaiarien garraioa:	
	2.1. Bidaiarien garraio publiko berezi edo pribatu osagarriko baimenak ematea, birgaitzea, bisatzea edo aldatzea:	27 euro, enpresarentzako baimen bakoitzeko
	2.2. Ibilgailu bakoitzaren baimenaren kopia ziurtatuak luzatzea:	12 euro kopia ziurtatu bakoitzeko
	2.3. Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikorako baimenak ematea edo berritzea:	27 euro baimen bakoitzeko
3. TARIFA	Ibilgailu gidaridunak errentatzeko baimenak ematea, birgaitzea, luzatzea, bisatzea edo aldatzea:	27 euro ibilgailu bakoitzeko
4. TARIFA	Garraioaren jarduera osagarriak ezartzeko baimenak ematea, berritzea edo aldatzea (garraioko operadorea):	55 euro subjektu pasibo bakoitzeko
5. TARIFA	Bestelako tasak:	
	5.1. Liburu edo dokumentu nahitaezkoak legeztatu, eginbideak egin edo zigilatzeagatik:	11 euro
	5.2. Baimenen kopia bikoiztuak luzatzeagatik:	18 euro
	5.3. Gidari ziurtagiria luzatzeagatik:	28 euro
	5.4. Takografo digitalaren txartela luzatzeagatik:	43 euro
6. TARIFA	Azterketa egiteko eta tituluak emateko tasak:	
	6.1. Ondoko azterketa hauek egiteko eskubideengatik: garraiolariaren lanbide gaitasunaren titulua lortzekoa, segurtasun aholkulariaren titulua lortzekoa edo berritzekoa, edo gidariaren lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzekoa:	12 euro
	6.2. Garraiolariaren lanbide gaitasunaren titulua emateagatik eta segurtasun aholkulariaren titulua emateagatik edo berritzeagatik:	27 euro
7. TARIFA	Gidarien hasierako kualifikazioaren eta etengabeko prestakuntzaren tasak:	
	7.1. Zentroak baimentzea:	340 euro
	7.2. Zentroak ikus-onestea:	178 euro
	7.3. Ikastaroak homologatzea:	125 euro
	7.4. Gidariaren gaitasun txartela ematea edo berritzea:	26 euro
	7.5. CAParen (Profesionalen Gaitasun Agiria) hasierako prestakuntzatik salbuesteko egiaztagiria luzatzea:	9 euro
8. TARIFA	Idatzizko txostenak prestatzeagatik:	
	8.1. Garraiolarien eta Garraioko Jarduera Lagungarri eta Osagarrien Erregistro Orokorrean edo Garraio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen beste erregistro batzuetan ageri diren pertsonen, baimenen, ibilgailuen edo enpresa berariazkoen buruzko datuen gainean:	26 euro
	8.2. Aurreko kontzeptuaren jarduketarako, datu orokorren gainean:	211 euro”

Hamaika. 133 bis.4 artikulua.

“4. Tarifa.

Tarifa hauen arabera izanen da tasa:

Inprimategian editatutako kartografia:

IZENA	TASA (eurotan)
1. Nafarroako mapa topografikoak:	
– 1:10.000 (hormakoa/tolestua):	3,17
– 1:100.000 orriko (hormakoa/tolestua):	3,81
– 1:100.000 (hormakoa/koloretan):	31,71
– 1:200.000 (hormakoa/tolestua):	3,81
– 1:200.000 (erliebea):	31,71
– 1:400.000 (hormakoa/tolestua):	2,54
2. Nafarroako mapa hipsometrikoak:	
– 1:200.000 (hormakoa/tolestua):	3,81
– 1:400.000 (hormakoa/tolestua):	2,54
3. Nafarroako mapa geologikoak:	
– 1:200.000 (hormakoa/tolestua):	10,57
– 1:200.000 eta oroit-idazkia:	15,86
4. Nafarroako mapa topografikoa:	
– 1:850.000:	1,27
5. Laboreen eta aprobetxamenduen mapak:	
– 1:25.000:	6,34
6. Iruñeko mapa geoteknikoak:	
– 1:25.000 eta Memoria:	15,86
7. Ortofotomapak:	
– Nafarroakoa 1:25.000 eskalan (hormarakoa/tolestua):	2,54
8. Nafarroako laboreen eta aprobetxamenduen mapak:	
– 1:200.000 (hormakoa/tolestua):	9,51

## 2) Kartografia ploteatua:

IZENA	TASA (eurotan)
1. Kartografia topografikoak:	
– 1:500 (100 herri, 1978koa) (papera/zuri eta beltzean):	9,51
– 1:500 eskalan: Altsasu, Corella, Lizarra, Azkoien, Zangoza, San Martin Unx, Uxue, Tuter, Iruñerria (papera/zuri eta beltzean)	6,34
– Iruñerria 1:500 eskalan (papera/koloretan):	12,68
– Tuter 1:1.000 eskalan (papera/zuri eta beltzean):	7,61
– 1:2.000 eskalan: Iruñerria, Belagua, Eugi, Altsasu, Olazti, Tafalla, Erriberri (papera/zuri eta beltzean):	7,61
– SIUN, hirikoa, 1:1.000 eskalan (papera/koloretan):	12,68
2. Nafarroako mapa topografikoak:	
– 1:5.000 (papera/zuri eta beltzean)	6,34
– 1:5.000 (papera/koloretan):	12,68
– 1:10.000 (papera/zuri eta beltzean):	6,34
– 1:10.000 (papera/koloretan):	12,68
– Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan):	52,85
3. Ortofotografiak:	
– 1:2.000 (papera/zuri eta beltzean)	7,61
4. Nafarroako ortofotomapak:	
– 1:5.000 (argazki papera):	12,68
– 1:5.000 (paper arrunta):	9,51
– 1:10.000 (argazki papera):	12,68
– 1:10.000 (paper arrunta):	9,51
– Iruñerrikoa 1:12.500 eskalan (hormarakoa):	12,68
5. SIUN, hiriko ortofotomapa:	
– 1:1.000 (paper arrunta):	9,51
– 1:1.000 (argazki papera):	12,68
6. Litobalak, eskala ertainekoak:	
– 1:5.000:	3,17
7. Nafarroako mapa geologikoa:	
– 1:25.000:	12,68
8. Nafarroako mapa geomorfologikoa:	
– 1:25.000:	12,68
9. Lurzoruaren erabileren mapa:	
– 1:200.000 (paper arrunta):	12,68
10. Nafarroako Natura 2000 Sarearen mapa:	
– 1:200.000 (paper arrunta):	12,68
11. Nafarroako abelbideen mapa:	
– 1:200.000 (paper arrunta):	12,68
12. Naturgune babestuen mapa:	
– 1:200.000 (paper arrunta):	12,68

IZENA	TASA (eurotan)
13. Europar Batasunaren Intereseko Lekuen eta Naturgune Babestuen mapak, zenbait eskalatan (EBILen edo NBen tamainaren arabera):	12,68
14. Nafarroako lurzorua erabileren mapa:	
– 01:25.000 (paper arrunta):	12,68
15. Nafarroako landare sailen mapa:	
– 1:200.000 (paper arrunta):	12,68
16. Fotogramen kopia edo handitzeak, DINA4 artekoak:	
– Paper arrunta:	4,23
– Argazki papera:	6,34
17. Planoak eskaneatu eta kopiatzea:	
– ISO A0 tamainakoa:	12,68
– ISO A1 tamainakoa:	9,51
– ISO A2 tamainakoa:	8,46
– ISO A3 tamainakoa:	6,34
– ISO A4 tamainakoa:	4,23

## 3) Kartografia digitala:

IZENA	TASA (eurotan)
1. Iruñeko 1:25.000 eskalako mapa geoteknikoaren CDa eta oroit-idazkia (PDF):	10,57
2. CD-a, (*) produktuen gaineko informazioa duena, 550 megabytekoa gehienez ere:	10,57
3. DVD-a, (*) produktuen gaineko informazioa duena, 3.550 megabytekoa gehienez ere:	63,42

\* Aurreko taulak CD edo DVD euskarrietan saltzen diren produktuen izenak haien tamainaren arabera dakartzatza (bytetan):

PRODUKTUAREN IZENA
Kartografia topografikoa 1:500 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:5.000 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:10.000 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 orria (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 osoa (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:200.000 (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:400.000 (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:850.000 (pdf)
Ortoargazkia 1:2.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 1:5.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 1:10.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 01:25.000 (tiff, jpeg, ecw)
Nafarroako mapa geologikoa 1:25.000 (pdf)
Nafarroako mapa geologikoaren orri baten memoria, 1:25.000 (pdf)
Lurraldearen eredu digitala
Fotograma digitalak edo eskaneatuak

## 4) Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan:

IZENA	PAPERA(euroak)
Fotograma (24x24)	31,71
Handitzea (21x29)	31,71
Handitzea (24x24)	31,71
Handitzea (50x50)	40,17
Handitzea (50x60)	40,17
Handitzea (70x70)	40,17
Handitzea (70x80)	61,31
Handitzea (80x90)	61,31
Handitzea (100x100)	61,31

## 5) Beste produktu batzuk:

IZENA	TASA (eurotan)
1. Kartografiako katalogoa:	9,51
2. Nafarroako atlasa (Errepideak, Turismoa eta Ingurumena):	12,68"

Hamabi. 146. artikulua, 9. tarifa, 6. puntua.

"9. TARIFA	6. Ardi eta ahuntz azientak identifikatzeagatik (ikusteko moduko belarritakoa gehi belarritako elektronikoa edo errumeneko pilula)	3,00"
------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------

Hamahiru. 155. artikulua.

“155. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera tasa eskatuko da:

Muztioak, ardoak, mistelak, ozpinak, mahatsaren ondoriozko bestelako produktuak, likoreak, patxarana eta antzeko edari alkoholikoak.

ANALISI KODEA	ANALISIEN IZENA	EUROTAN
001	1-BUTANOLA	2,25
002	1-PROPANOLA	2,25
003	2-BUTANOLA	2,25
005	AZETALDEHIDOA	2,60
006	ETILO AZETATOA	2,60
007	METILO AZETATOA	2,60
008	AZIDOTASUN FINKOA	1,69
009	AZIDOTASUNA GUZTIRA – BARNE METODOA	1,90
010	AZIDOTASUNA GUZTIRA – METODO OFIZIALA	1,90
011	AZIDOTASUN HEGAZKORRA – METODO OFIZIALA	1,90
012	AZIDOTASUN HEGAZKORRA – BARNE METODOA	1,90
014	AZIDO ZITRIKOA	5,50
016	AZIDO LAKTIKOA	5,30
017	AZIDO L-MALIKOA	4,35
018	AZIDO SORBIKOA	8,10
019	AZIDO TARTARIKOA	5,25
020	ERRAUTSEN ALKALINOTASUNA	2,40
114	GOI MAILAKO ALKOHOLAK	2,65
021	ANH. SULFUROSO LIBREA – BARNE METODOA	1,90
022	ANH. SULFUROSO LIBREA – METODO OFIZIALA	1,90
023	ANH. SULFUROSOA GUZTIRA – BARNE METODOA	1,90
024	ANH. SULFUROSOA GUZTIRA – METODO OFIZIALA	1,90
025	ANTOZIANOAK	2,50
027	AZUKRE GUTXITZAILEAK	1,95
028	AZUKREAK, GUZTIRA	3,90
029	BROMUROAK	2,36
030	KALTZIOA	10,50
031	KATEKINAK	2,50
032	ERRAUTSAK	2,40
033	KLORUROAK	2,00
034	KOBREA	10,50
035	KOLORATZAILE SINTETIKOAK	5,25
122	KLOROPIKRINAREN DEGRADATZEAREN KONP.	7,25
119	KONDUKTIBITATEA	1,90
110	CIELAB A KOORDENATUA	9,60
111	CIELAB B KOORDENATUA	9,60
112	CIELAB C KOORDENATUA	9,60
108	CIELAB H KOORDENATUA	9,60
109	CILAB L KOORDENATUA	9,60
123	CIELAB S KOORDENATUA	9,60
036	AKATS ORGANOLEPTIKOAK	2,50
041	DENTSITATE OPTIKOA 620 NM	1,45

ANALISI KODEA	ANALISIEN IZENA	EUROTAN
037	DENTSITATE OPTIKOA 280 NM	1,45
038	DENTSITATE OPTIKOA 429 NM	1,45
040	DENTSITATE OPTIKOA 520 NM	1,45
044	DENTSITATE ERLATIBOA 20° C-AN	1,15
045	DIETILENGLIKOLA	2,90
046	PROTEINA EGONKORTASUNA	5,25
047	EGONKORTASUN TARTARIKOA	5,50
048	ESTERRAK GUZTIRA	3,15
050	ETANOLA OZPINEAN	3,05
049	ATERAKIN EZ GUTXITZAILEA	1,10
051	ATERAKIN GUTXITUA	1,10
053	ATERAKIN LEHORRA, GUZTIRA	1,10
054	OZPIN ATERAKINA GUZTIRA	1,10
055	FERROZIANUROA DISOLUZIOAN	5,25
056	FERROZIANUROA ESEKIDURAN	5,25
057	FLUORUROAK	2,36
067	ALKOHOL GRADU BOLUMETRIKOA GUZTIRA, NIR TEKNIKAREN BIDEZ	1,50
064	DESTILATZE BIDEZ HARTUTAKO ALKOHOL GRADU BOLUMETRIKOA.	3,25
065	DENTSITATEA ELEKTRONIKOKI NEURTUZ HARTUTAKO ALKOHOL GRADU BOLUMETRIKOA	3,25
063	NIR TEKNIKAREN BIDEZ HARTUTAKO ALKOHOL G. BOLUMETRIKOA	1,20
066	ALKOHOL GRADU BOLUMETRIKOA POTENTZIAN	1,50
059	GLIZERINA	8,05
061	GLUKOSA + FRUKTOSA	5,50
062	ALKOHOL GRADUA PISUAN	3,25
069	BEAUME GRADUA	1,20
071	LITEKEEN GRADUA	1,20
132	HISTAMINA	25,00
072	BURDINA	10,50
074	KOLMATAZIO INDIZEA	5,25
075	FOLIN-CIOCALTEU INDIZEA	2,50
076	ANTOZIANOEN IONIZAZIO INDIZEA	2,50
129	OXIDASETAKO POLIFENOL INDIZEA	2,50
078	DASTATZE TXOSTENA	5,00
079	INTENTSITATE KOLOREZTATZAILEA - ZIURTATUA	1,50
080	ISOAMILIKOAK	2,25
081	ISOBUTANOLA	2,25
082	METILO ISOTIOZIANATOA	7,25
083	MAGNESIOA	10,50
086	MASA BOLUMIKOA 20 °C-AN	1,15
087	METANOLA	2,65
088	100 ALEREN PISUA	0,60
089	pH-A – BARNE METODOA	1,90
090	pH-A – METODO OFIZIALA	1,90
092	BERUNA	20,00
093	HEZETASUN PORTZENTAJEA	1,90
094	POTASIOA	10,50
095	HIBRIDOEN PRESENTZIA	5,25



ANALISI KODEA	ANALISIEN IZENA	EUROTAN
096	BAKTERIO KONTAKETA	10,00
097	LEGAMIA KONTAKETA	10,00
098	LIZUN KONTAKETA	10,00
134	ATERAKINAREN GAINERAKOA	1,10
102	SAKAROSA	8,00
103	SODIOA	10,50
104	SULFATOAK	5,30
105	TONALITATEA	1,50
106	UHERTASUNA	5,25
107	ZINKA	10,50
	ANALISI KONPOSATUAK	
AC012	AZKEN HARTZIDURA: azido L-malikoa, glukosa+fruktosa	6,00
AC001	OSORIK: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; anh. sulfuroso librea; hartutako alk. gradu bolumetrikoa	8,00
AC002	OSORIK, AZUKREEKIN: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; anh. sulfuroso librea; azukre gutxitzaileak	8,60
AC005	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO EDARI ESPIRITUOSOAK ESPORTATZEA: hartutako alk. gradu bolumetrikoa, Baume gradua, masa bolumikoa 20°C-an	5,00
AC020	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO MUZTIOAK ESPORTATZEA: azidotasuna, guztira; alk. gradu bolumetrikoa, guztira; Baumé gradua, masa bolumikoa 20°C-an	5,00
AC004	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO UPELEKO ARDO LEHORRAK ESPORTATZEA: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; akats organoleptikoak; aterakin lehorra, guztira; hartutako alk. gradu bolumetrikoa; alk. gradu bolumetrikoa, guztira; masa bolumikoa 20°C-an; metanola	18,10
AC029	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO UPELEKO ARDO GOZOAK ESPORTATZEA: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; akats organoleptikoak; aterakin lehorra, guztira; hartutako alk. gradu bolumetrikoa; alk. gradu bolumetrikoa, guztira; masa bolumikoa 20°C-an; metanola	19,5
AC003	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO ARDO LEHORRAK BOTILETAN ESPORTATZEA: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; aterakin lehorra, guztira; hartutako alk. gradu bolumetrikoa; alk. gradu bolumetrikoa, guztira; masa bolumikoa 20°C-an; metanola	16,00
AC013	EUROPAR BATASUNEN MERKATUA EDO ARDO GOZOAK BOTILETAN ESPORTATZEA: azidotasuna, guztira; azidotasun hegazkorra; anh. sulfurosoa, guztira; aterakin lehorra, guztira; hartutako alk. gradu bolumetrikoa; alk. gradu bolumetrikoa, guztira; masa bolumikoa 20°C-an; metanola	18,00
	KONTZEPTU ADMINISTRATIBOAK	
CA002	Txostenaren edo ziurtagiri informatikoen itzulpena	1,50
CA001	Kopiak eta jatorrizkoak, saiakuntzaren lehenbiziko txostenetik aurrera (informatikoak)	1,50
CA003	Salmenta librearen ziurtagiria	5,00
CA004	Bestelako ziurtagiriak eta txostenak	6,10"

Hamalau. XII. tituluaren I. kapitulua.

“I. kapitulua. Tasak, industria segurtasunaren, meatzeen eta metrologiaren arloan zerbitzuak egiteagatik.

## 165. artikulua. Zergapeko egintza.

Ofizioz edo alderdiak eskaturik, foru lege honen 168. artikulua aipatzen dituen zerbitzuak industria segurtasunaren, meatzeen eta metrologiaren arloan egitea da tasaren zergapeko egintza.

## 166. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergapeko egintza eratzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

## 167. artikulua. Sorrarazpena.

Zerbitzua egitean sorraraziko da tasa. Nolanahi ere, eskaera egitean edo espediente hastean eska daiteke ordaintzeko.

## 168. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberakoa izanen da tasa:

## A) BAIMENAK.

1. Industria segurtasunari buruzko erregela-menduei lotutako instalazioen baimen administrati-boak: 150 euro.

2. Jarduerak egiteko baimena: 150 euro.

3. Jarduera/instalazioen titulartasuna aldatzea: 30 euro.

4. Meatzeen arloko baimenak eta adierazpe-nak: 150 euro.

5. Txostenak lehergaien erabilerari eta leherke-ta proiektuei buruz: 60 euro.

6. Esplorazio, aztertze eta kontzesio baimenak. 2.000 euro.

7. Meatzeko eskubideen transmisioa: 150 euro.

## B) ERREGISTROAK.

1. Instalazio, tresna eta ekipoen erregistroa: 30 euro.

2. Instalazio, tresna eta ekipoen erregistroa entitate baimenduetan: 10 euro.

3. Entitate baimenduak egindako egiaztapen metrologikoen erregistroa, aparatu bakoitzeko: 1 euro.

4. IAT estazioetan tramitatzen diren espedien-teetatik eratorritako erregistroa eta zerbitzuak (aldian-aldiko azterketak salbu): 5 euro.

## C) ZIURTAGIRIAK.

1. Aldez aurreko egiaztapenak behar dituzten ziurtagiriak eta kreditazioak ematea: 30 euro.

## D) BESTE BATZUK.

1. Azterketa eskubideak industria segurtasuna-ren arloan: 30 euro.

2. Karnet profesionalak luzatzea: 30 euro.

3. Karnet profesionalak berritzea: 15 euro.

4. Desjabetze espedientearen hasiera 90 euro.

5. Okupazio akta: 50 euro.

6. Ikuskapena, erabilerako eredu eta patenteak praktikan jartzeko: 90 euro.

7. Ibilgailu historikoak katalogatzea: 60 euro.

8. Alderdiak eskaturik, instalazioak, tresnak edo eki-poak ikuskatzea: 150 euro.

9. Egiaztapen metrologikoa erreklamazioa dela-eta: 10 euro.

Eredua onestea (kontrol metrologikoa): 150 euro.

10. Ibilgailuen tramitazio-homologazioa: 30 euro.”

Hamabost. 173. artikulua.

“173. artikulua. Zergapeko egintza.

Indarra duten xedapenekin bat, Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroan gaitu edo inskribatu beharreko kirol klubei, kirol klub filialei eta kirola sustatzeko enteei dagozkien egintza, egitate eta agirien inskripzioa eta egiaztapena da tasa honen zergapeko egintza.”

**Zortzigarren artikulua.** Energia elektrikoa ekoizteko balioaren gaineko zerga. 2013ko urtarri-laren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko da energia elektrikoa ekoizteko balioaren gaineko zerga, energia elektrikoa ekoiztea eta hura siste-ma elektrikoan (zentraleko barretan neurtua) eran-stea zergapetzen duena, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen IV. titu-luan aipatzen diren instalazioen bidez.

2. Zerga hori ordainaraztean, hura arautzen duen Estatuko araudia aplikatuko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin hitzartzen dituen harmonizazio irizpideak errespe-tatuko ditu.

**Bederatzigarren artikulua.** Gastatutako erregai nuklearra sortzearen gaineko zerga, energia nukleolektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboen gainekoa eta gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzearen gainekoa. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dira gastatutako erregai nuklearra ekoiztearen gaineko zerga, energia nukleolektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboen gainekoa eta gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzearen gainekoa.

2. Zerga horiek ordainaraztean, haiek arautzen dituen Estatuko araudia aplikatuko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin hitzartzen dituen harmonizazio irizpideak errespetatuko ditu.

**Lehen xedapen gehigarria.** Balantzeak eguneratzea.

1. Honako hauek heltzen ahal diote, borondatez, xedapen honetan arautzen den balioen eguneratzeari:

a) Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergapekoak, establezimendu iraunkorra dutenak eta, Hitzarmen Ekonomikoan xedatuarekin bat, sozietateen gaineko zergari buruzko foru araudia aplikagarri dutenak, baldin eta kontabilitatea eramaten badute Merkataritzako kodean aurreikusitakoaren arabera.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak eta enpresa edo lanbide jarduerak garatzen dituzten enteak, zeinek helbide fiskala Nafarroan izanda, errenta egozpenaren araubidean tributatzeko baitute, baldin eta, kasu guztietan, errendimendu garbiak estimazio zuzeneko araubidean zehazten badira eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

1. Enpresa jarduerak egitean, Merkataritzako kodean xedatuarekin bat eraman behar dute kontabilitatea. Edonola ere, estimazio zuzeneko araubidearen modalitate sinplifikatuaren bidez zehazten direnean jardueraren errendimenduak, edo, kode horren arabera, egindako enpresa jarduera ez denean merkataritzakoa, aski izanen da behar bezala eginbideturik eramatea erregistro liburuak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduaren 61.3 artikuluan aurreikusten direnak (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia).

2. Lanbide jarduerak egiten dituztenean, behar bezala eginbideturik eraman behar dituzte erregistro liburuak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduaren 61.5 artikuluan aurreikusten direnak.

2. Ibilgetu materialaren elementuak eta higiezinetak inbertsioen eguneratuko dira, Espainian zein atzerrian egon. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergapekoak direnean, establezimendu iraunkorrekoak, eguneratu beharreko elementuak establezimendu iraunkor horri atxikiko zaizkio.

Orobat, errentamenduaren araubidean eskuratutako higiezinetak inbertsioen elementuak eta ibilgetu materialarenak eguneratuko dira, Kreditu Entitateen Diziplina eta Esku-hartzeari buruzko utzailaren 29ko 26/1988 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. atalean aipatu bezala. Eguneratzearen ondorioak, ebazpen izaeraz, erosteko aukera baliatzearen baldintzapean egon diren dira.

Eguneratu daitezkeen elementu guztiak eta haiei dagozkien amortizazioak aipatuko ditu eguneratzeak halabeharrez, higiezinaren kasuan izan ezik, haiek era independentean eguneratzen ahal baitira banan-banan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergapekoen kasuan, eguneratzeko elementuak enpresa edo lanbide jarduerari atxikiko zaizkio.

3. Xedapen honek indarra hartu ondoan ixten den lehen balantzean jasotzen diren higiezinetak inbertsioen elementuen gainean eta ibilgetu materialaren elementuen gainean eguneratuko dira balioak, edo 2012ko abenduaren 31n erregistro liburueta jasotzen direnen gainean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboen kasuan, zerga horrek behartzen baditu erregistro liburu horiek eramatera, betiere zerga aldetik guztiz amortizaturik ez badaude.

Eguneratzeko eragiketen ondoriozko kontabilitateko errebalorizazioen zenbatekoa "Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorizazio erreserba" izeneko kontura eramanen da, zein funts berekien parte izanen baita. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, enpresa edo lanbide jardueraren erregistro liburuak eraman behar dituztenak, kontabilitateko errebalorizazioen zenbatekoa inbertsioko ondasunen erregistro liburuan jaso beharko da.

Eguneratzeko eragiketak eginen dira atal hone-tako lehenbiziko lerroaldeak balantzeta ixteko aipatzen duen egunetik hura onesteko epea bukatzen den egunera bitarte. Pertsona juridikoen kasuan, gizarte organo eskudunak onetsia egon behar du balantze eguneratuak. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboan kasuan, eguneratzeko eragiketak eginen dira 2012ko abenduaren 31tik zerga horren 2012ko zergaldian aitorpena aurkezteko epea bukatzen den egunera bitarte.

4. Xedapen honi ezin zaizkio lotu ondareko elementuak eransteko eragiketak, kontabilitate liburu-etan erregistraturik ez badaude, edo kasuan kasuko erregistro liburu-etan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboan kasuan, baldin eta zerga horrek behartzen baditu erregistro liburu horiek eramatera. Halaber, existitzen ez diren pasiboak liburu horietatik kentzekoak ere ezin zaizkio lotu.

5. Eguneratzeko eragiketak eginen dira errege-lamenduaren arabera zehazten diren koefizienteak aplikatuta.

Honela aplikatuko dira koefizienteak:

a) Eskuratze prezioaren edo produkzio kostuaren gainean, kontuan izanda ondareko elementua zein urtetan eskuratu edo produzitu den. Zein urtetan egin den hobekuntza, urte hartako koefizientea aplikatuko da.

b) Zerga ondorioetarako kengarriak ziren produkzio kostuei edo eskuratze prezioari dagozkien amortizazioen gainean, kontuan izanda zein urtetan egin ziren.

Balioak Eguneratzeari buruzko abenduaren 30eko 23/1996 Foru Legearen arabera eguneratutako ondareko elementuen kasuan, koefizienteak aplikatuko dira erosketa prezioaren gainean eta lege horri dagozkion eta zerga ondorioetarako kengarriak ziren amortizazioen gainean, aintzat hartu gabe balioaren handitze garbiaren zenbatekoa eguneratze eragiketen ondorioz.

6. Aurreko atalean ezarritakoa aplikatuz ateratako kopuruen arteko aldeari ondareko elementuaren aurreko balio garbiaren zenbatekoa kenduko zaio, eta eragiketa horren emaitzari, bidezkoa bada, honako honek zehaztuko duen koefizientea aplikatuko zaio:

1. Zenbakitzailean: ondare garbia.

2. Izendatzailean: ondare garbia gehi guztirako pasiboa, diruzaintza eta kredituko eskubideak kenduta.

Koefizientea zehaztuko duten magnitudeak izanen dira ondareko elementua eduki den denboran izandakoak, edo eguneratzeko balantzeta egin aurreko bost ekitaldietan izandakoak, azken epe hori txikiagoa bada, subjektu pasiboaren edo zergapekoaren hautura.

Koefiziente hori ez da aplikatuko 0,4 baino handiagoa denean.

Eguneratutako ondare elementuaren aurreko balioa zehazteko, atal honetan aipatzen diren eguneratze koefizienteak aplikatzearen ondorioz aintzat hartutako balioak erabiliko dira, amortizazioak barne.

Atal honek aipatzen duen koefizientea ez zaie aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari.

7. Aurreko atalean deskribatutako eragiketen ondoriozko zenbatekoa kenduko zaio 23/1996 Foru Legean aurreikusitako eguneratze eragiketen ondoriozko balioaren handitze garbiari. Diferentzia positiboa izanen da, moneta balio-galeraren zenbatekoa edo eguneratutako ondare elementuaren balioaren handitze garbia zehazturik. Zenbateko hori errebalorizazio erreserbaren kontu horretan ordainduko da ("Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorazio erreserba") eta, xedapen honen ondorioz aplikagarri diren eguneratze eragiketen aurreko balioa erantsita, eguneratutako ondare elementuaren balio berria zehaztuko du. Eguneratutako balio berria ezin da eguneratutako ondare elementuen merkatu balioa baino handiagoa izan, kontuan izanik nola dauden erabileraren aldetik, higadura tekniko eta ekonomikoaren arabera eta subjektu pasiboak edo zergapekoak haiekin egindako erabilpenaren arabera.

Eguneratutako balio berria amortizatuko da erregelamenduz zehazten den moduan, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko den lehen zergaldiarekin.

8. Eguneratzea egiten duten subjektu pasiboek edo zergapekoek %5eko karga tasa bakarra ordaindu beharko dute "Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorazio erreserba" izeneko kontuaren saldo hartzekodunaren gainean. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, enpresa edo lanbide jardueraren erregistro liburuak eraman behar dituztenak, karga tasa bakarra eguneratutako ondare elementuen balioaren handitze garbiren gainekoa izanen da.

Karga tasa bakarraren zergapeko egintza burututzat joko da, pertsona juridikoen kasuan, eguneratutako balantzea organo eskudunak onesten duenean, eta, pertsona fisikoen kasuan, eguneratutako balantzea formulatzean. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, enpresa edo lanbide jardueraren erregistro liburuak eraman behar dituztenak, zergapeko egintza burututzat joko da 2012ko abenduaren 31n.

Karga tasa bakarra eska daiteke eguneratze eragiketak jasota dituen balantzeari dagozkion zergaldiari buruzko aitorpena aurkezten den egunean. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, karga tasa bakarra eska daiteke 2012ko zergaldiari dagokion aitorpena aurkezten den egunean.

Karga tasa hori berez likidatuko eta ordainduko da sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorpenarekin batera (eguneratze eragiketak jasota dituen balantzeari dagokion zergaldikoa), edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenarekin batera (2012ko zergaldikoa). Aitorpen horretan balantze eguneratua jasoko da, bai eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak zehazten duen informazio osagarria ere. Aitorpena epetik kanpo aurkezteak baliogabetuko ditu eguneratze eragiketak.

Karga tasa bakarraren zenbatekoa ez da hartuko sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuotatzat. Haren zenbatekoa "Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorazio erreserba" izeneko kontuan kargatuko da eta zergaren ondorioetarako ez da kengarria izanen zerga horietatik.

Karga tasa bakarra tributu zortzat joko da.

9. "Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorazio erreserba" izeneko kontuaren saldoa ez da sartuko sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian. Ezin izanen da hura erabili tributuen administrazioak egiaztatu eta onartu arte. Aurreko 8. atalak aipatzen duen aitorpena aurkeztu eta hiru urtera egin beharko da egiaztapen hori, erregelamenduz zehazten den moduan.

Administrazioaren egiaztapenaren ondorioz, kontuaren saldoa murriztekoa bada, murriztutako saldoari dagokion karga tasa bakarraren zenbatekoa ofizios itzuliko da. Arau bera aplikatuko da

balioaren handitze garbia murrizten bada, pertsona fisikoen kasuan.

Egiaztapena egin ondoren edo hura egiteko epea iragan ondoren, kontuaren saldoa erabil daiteke kontabilitateko emaitza negatiboak kentzeko, kapital soziala handitzeko, edo, 10 urte iraganda eguneratze eragiketak jasota dituen balantzea itxiz geroztik, erabilpen libreko erreserbetarako.

Erreserba horiek eskubidea emanen dute dibienduen zergapetze bikoitzaren ondoriozko karkarietarako (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 59. artikuluan aurreikusiak). Halaber, eskubidea emanen dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 7.v) artikuluan aurreikusitako salbuespenerako.

Kontuaren saldoa atal honetan aurreikusten diren helburuetarako ez erabiltzeak ekarriko du saldo hori sartuko dela aplikazio horren zergaldiko zerga-oinarrian, eta saldo horrekin ezin izanen dira konpentsatu aurreko zergaldietako likidazio oinarri negatiboak.

Kontua eskuragarri ez izatearen inguruan eta bere saldoaren destinoaren inguruan atal honetan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboiei.

10. Eguneratutako ondareko elementuen balioa eskualdatu edo andeatzean izandako galerak murriztuko zaizkio, zerga-oinarrian sartzearen ondorioetarako, elementu horiei dagokien "Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko xxaren xxko xx/2012 Foru Legearen errebalorazio erreserba" izeneko kontuaren saldoaren zenbatekoari. Saldo hori eskuragarri egonen da.

Atal honetan xedatua ez zaie aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboiei.

11. Xedapen hau erregelamenduz garatzen ahal da.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

2013an hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikulua aipatzen duen diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak, ondaretik eskualdatutako elementuak eskuratu diren unearan arabera, ondoko hauek izanen dira:

1983 eta aurrekoak	2,422
1984	2,194
1985	2,047
1986	1,947
1987	1,886
1988	1,809
1989	1,720
1990	1,651
1991	1,593
1992	1,540
1993	1,478
1994	1,421
1995	1,351
1996	1,287
1997	1,255
1998	1,241
1999	1,233
2000	1,228
2001	1,202
2002	1,189
2003	1,170

2004	1,158
2005	1,144
2006	1,122
2007	1,097
2008	1,063
2009	1,040
2010	1,028
2011	1,028
2012	1,008
2013	1,000

**Azken xedapenetako lehena.** Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.



